c) Kauzio-aseguru baten bidez, 5. ERANSKINAren arabera; aseguru hori arlo horretan jarduteko gaituta dagoen aseguru-erakunde batekin egin behar da.

Bigarren eta hirugarren kasuan (b eta c), jarraian adieraziko diren beste agiri hauek ere aurkeztu behar dira, aurretik aurkeztu ez badira:

1.- Enpresa abal-emailearen edo aseguratzailearen izenean jarduten duen pertsonaren NANa.

2.- Ahalorde-eskritura; bertan, abal edo kauzio-asegurua izenpetzen dutenek dituzten ahalmenak jaso behar dira.

Hirugarrenek jarritako bermeen araubidea SPKLren 112. artikuluan ezartzen dena izango da.

5,8.- Bermeak estali behar dituen erantzukizunak.

Honako kontzeptu hauez baino ez du erantzun behar behin betiko bermeak:

a) Kontratua epearen barruan formalizatzeko obligazioa, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) SPKLren 192. artikuluarekin bat kontratistari ezartzen zaizkion zigorrak.

c) b) Batetik, kontratuan jasotzen diren prestazioak zuzen gauzatzen direla (barnean harturik kontratistak eskaini eta kontratazio-organoak onarturiko hobekuntzak); bestetik, kontratista bere eginbeharrak betetzerakoan berandutzeak Bizkaia Bizkaialde Fundazioari eragiten dizkion gastuak; eta, azkenik, kontratua gauzatzeak edo ez betetzeak Bizkaia Bizkaialde Fundazioari eragiten dizkion kalte-galerak, ez dagokionean kontratua suntsiaraztea.

d) Kontratua suntsiarazten denean dekretatu daitekeen konfiskatzea, kontratuan edo SPKLn ezarrita dagoenaren arabera.

e) Horiez gainera, eraikitako edo emandako ondasunetan nahiz emaniko zerbitzuetan akatsik edo okerrik ez egotea kontratuan ezarrita dagoen berme-

acreditarla en el plazo de diez (10) días hábiles a contar desde el siguiente a aquél en que reciba el requerimiento de presentación de la garantía definitiva.

5.7.- Formas de prestar la garantía.

a) En efectivo o en valores de Deuda Pública.

b) Mediante aval, prestado según ANEXO 4 por alguno de los bancos, cajas de ahorros, cooperativas de crédito, establecimientos financieros de crédito y sociedades de garantía recíproca autorizados para operar en España.

c) Mediante contrato de seguro de caución según ANEXO 5, con una entidad aseguradora autorizada para operar en el ramo.

En los supuestos b) y c) se acompañará la siguiente documentación, salvo que se haya aportado con anterioridad:

1.- D.N.I. de la persona que actúe en nombre de la entidad avalista o aseguradora correspondiente.

2.- Escritura de apoderamiento en la que se recojan las facultades de quienes firman el aval o seguro de caución.

El régimen de garantías prestadas por terceros será el establecido en el artículo 112 de la LCSP.

5.8.- Responsabilidades a que está afecta la garantía.

La garantía definitiva únicamente responderá de los siguientes conceptos:

a) De la obligación de formalizar el contrato en plazo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 153 de la LCSP.

b) De las penalidades impuestas al contratista conforme al artículo 192 de la LCSP.

c) De la correcta ejecución de las prestaciones contempladas en el contrato incluidas las mejoras que ofertadas por la contratista hayan sido aceptadas por el órgano de contratación, de los gastos originados a la Fundación Bizkaia Bizkaialde por la demora de la contratista en el cumplimiento de sus obligaciones, y de los daños y perjuicios ocasionados a la Fundación Bizkaia Bizkaialde con motivo de la ejecución del contrato o por su incumplimiento, cuando no proceda su resolución.

d) De la incautación que puede decretarse en los casos de resolución del contrato, de acuerdo con lo que en él o en la LCSP esté establecido.

e) Además, la garantía definitiva responderá de la inexistencia de vicios o defectos de los bienes construidos o suministrados o de los servicios

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

epean zehar.

prestados durante el plazo de garantía que se haya previsto en el contrato.

5.9.- Bermea birjartzeko eta birdoitzeko araubidea.

Behin betiko bermea birjartzeko eta birdoitzeko araubidea SPKLren 109. artikuluan ezartzen dena da.

5.9.- Régimen de reposición y reajuste.

El régimen de reposición y reajuste de la garantía definitiva será el establecido en el artículo 109 de la LCSP.

5.10.- Itzulketa eta kitapena.

Bermea ez da itzuliko edo kitatuko harik eta baldintzen agiri honen karatulan ezartzen den berme-epea edo, bestela, kontratuan bertan ezartzen den epea amaitu eta kontratua behar bezala bete arte, edo kontratua suntsiarazten ez den arte, kontratistaren errurik gabe betiere. Izapidetzea SPKLren 111. artikuluan ezartzen diren arauen arabera egingo da.

Kontratuaren xedearen zati bat soilik jasotzen bada, kontratistak soilik eska dezake bermearen zati proportzionala itzultzea edo kitatzea, baldin eta hori berariaz baimentzen bada baldintzen agiri honen karatulan.

Kontratuak lagatzen badira, ez da lagatzaileak jarritako bermea itzuliko edo kitatuko harik eta lagapen-hartzailearen bermea behar bezala eratu arte.

Hala ere, behin betiko bermea kitatzeko epea SEI HILABETE izango da kontratuaren zenbatekoa 100.000 euro baino gutxiago bada, edo adjudikaziodunak enpresa txiki edo ertainei dagozkien betekizunak betetzen baditu —kontuan harturik nola definitzen diren halako enpresak Batzordearen abuztuaren 6ko 800/2008 (EE) Erregelamenduan, zeinaren bidez finkatzen baitira merkatu bateratuarekin bateragarriak diren laguntza-kategoria batzuk Europako Erkidegoaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz—, eta ez baditu kontrolatzen, zuzenean nahiz zeharka, eskakizun horiek betetzen ez dituen beste enpresa batek (SPKL, 111.5 art.).

5.10.- Devolución y cancelación.

La garantía no será devuelta o cancelada hasta que se haya producido el vencimiento del plazo de garantía establecido en la carátula de este pliego o, en su caso, el que conste en el contrato, y cumplido satisfactoriamente el contrato de que se trate, o hasta que se declare la resolución de éste sin culpa de la contratista. La tramitación se ajustará a las reglas establecidas en el artículo 111 de la LCSP.

En el supuesto de recepción parcial la contratista sólo podrá solicitar la devolución o cancelación de la parte proporcional de la garantía cuando así se haya autorizado expresamente en la carátula de este pliego.

En los casos de cesión de contratos no se procederá a la devolución o cancelación de la garantía prestada por la cedente hasta que se halle formalmente constituida la de la cesionaria.

No obstante, el plazo de cancelación de la garantía definitiva será de SEIS MESES en el caso de que el importe del contrato sea inferior a 100.000 euros, o cuando el adjudicatario reúna los requisitos de pequeña o mediana empresa, definida según lo establecido en el Reglamento CE nº 800/2008, de la Comisión de 6 de agosto de 2008, por el que se declaran determinadas categorías de ayuda compatibles con el mercado común en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea y no estén controladas directa o indirectamente por otra empresa que no cumpla tales requisitos (art. 111.5 LCSP).

6.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA.

6.- TRAMITACIÓN DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN.

6.1.- Izapidetzea.

Kontratazio-espedientea agiri honen karatulako "G" atalean zehazten denaren arabera izapidetuko da (TRAMITAZIOA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA).

Epea baino lehen izapidetzen diren espedienteetan, adjudikazioa egin ahal izateko, baldintza bat bete behar da: kontratuaren exekuzioa hasiko den ekitaldian kreditu egokia eta nahikoa egon behar da kontratu honetatik eratorritako obligazioak bermatzeko.

6.1.- Tramitación.

El expediente de contratación se tramitará según lo señalado en el apartado "G" (TRAMITACIÓN Y PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN) de la carátula de este pliego.

En los expedientes que se tramiten anticipadamente, la adjudicación queda sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para garantizar las obligaciones derivadas del contrato en el ejercicio en que se vaya a iniciar la ejecución del contrato.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

6.2.- Presazkoa.

Presazkotzat jotzen diren espedienteak izapidetzeko, espediente arruntekin erabiltzen den prozedura bera erabiliko da, SPKLren 119. artikuluan jasotzen diren berezitasunekin.

6.3.- Larrialdia.

Larrialdiko izapidetzeaz kalifikaturiko espedienteek SPKLren 120. artikuluan jasotzen den salbuespenezko araubidea izango dute.

7.- LIZITAZIOA

7.1.- Printzipioak.

7.1.1. Berdintasuna, gardentasuna, lehia askea, publikotasuna eta informazioa

1. Kontratazio-organoak berdintasunez tratatuko ditu lizitatzaileak eta hautagaiak, diskriminaziorik gabe, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo du.

2. Kontratazioa nola egin pentsatzean, asmoa ez da izango publikotasun-betekizunak edo kasuan-kasuan dagokion adjudikazio-prozedurari buruzkoak saihestea, ez eta lehia artifizialki murriztea ere, dela enpresa batzuk lagunduz dela beste batzuk bidegabeki kaltetuz.

3. Kontratazio-organoak adjudikazio-prozedura guztian zehar zainduko du lehia askearen babesa.

7.1 2 Isilpekotasuna

Kontratazio-organoak ezin izango du enpresek emaniko informaziorik zabaldu, baldin eta enpresok isilpekotzat izendatu badute beren eskaintza aurkeztean. Isilpeko izango dira, besteak beste, sekretu teknikoak eta merkataritzakoak, eskaintzen alderdi isilpekoak eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informazio, dela lizitazio-prozedura honetan dela gerokoren batean.

Kontratazio-organoaren eta haren mendeko zerbitzuen isilpekotasun-betebeharra ezingo zaio ezarri adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osoari, ez eta kontratazio-organoak lizitazio-prozeduran zehar zuzenean edo zeharka sortzen dituen txosten eta agiri guztiei ere. Zabalkunde murriztua duten agiriei baino ezingo zaie ezarri betebehar hori, eta ezein kasutan publikoki eskuratzekoak direnei.

Kontratistak isilpean gorde behar du kontratua gauzatzen den bitartean eskuratzen duen informazioa, baldin eta

6.2.- Urgente.

Los expedientes calificados de urgentes se tramitarán siguiendo el mismo procedimiento que los ordinarios, con las especialidades recogidas en el artículo 119 de la LCSP.

6.3.- Emergencia.

Los expedientes calificados con tramitación de emergencia tendrán el régimen excepcional recogido en el artículo 120 de la LCSP.

7.- LICITACIÓN

7.1.- Principios.

7.1.1. Igualdad, transparencia, libre competencia, publicidad e información

1. El órgano de contratación dará a las licitadoras y candidatas un tratamiento igualitario y no discriminatorio y ajustará su actuación a los principios de transparencia y proporcionalidad.

2. La contratación no será concebida con la intención de eludir los requisitos de publicidad o los relativos al procedimiento de adjudicación que corresponda, ni de restringir artificialmente la competencia, bien favoreciendo o perjudicando indebidamente a determinadas empresas.

3. El órgano de contratación velará en todo el procedimiento de adjudicación por la salvaguarda de la libre competencia.

7.1.2 Confidencialidad

El órgano de contratación no podrá divulgar la información facilitada por las empresas que estas hayan designado como confidencial en el momento de presentar su oferta. El carácter de confidencial afecta, entre otros, a los secretos técnicos o comerciales, a los aspectos confidenciales de las ofertas y a cualesquiera otras informaciones cuyo contenido pueda ser utilizado para falsear la competencia, ya sea en este procedimiento de licitación o en otros posteriores.

El deber de confidencialidad del órgano de contratación así como de sus servicios dependientes no podrá extenderse a todo el contenido de la oferta de la adjudicataria ni a todo el contenido de los informes y documentación que, en su caso, genere directa o indirectamente el órgano de contratación en el curso del procedimiento de licitación. Únicamente podrá extenderse a documentos que tengan una difusión restringida, y en ningún caso a documentos que sean públicamente accesibles.

La contratista deberá respetar el carácter confidencial de aquella información a la que tenga acceso con ocasión de

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

informazio hori isilpekotzat jo bada baldintza-agirietan edo kontratuan, edo informazioaren beraren izaera dela-eta isilpean gorde behar bada. Betebehar hori informazioaren berri izan eta bost urtez egongo da indarrean, salbu eta kontratuak edo baldintza-agiriek epe luzeago bat ezartzen ez badute, betiere denbora-tarte zehatz eta mugatu baterako.

7.2.- Adjudikazio-prozedura:

7.2.1.- Prozedura.

Adjudikazio-prozedura agiri honen karatulako "G" atalean ezartzen dena izango da (TRAMITAZIOA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA). Prozedura irekian, interesa duen edozein enpresak aurkeztu ahalko du proposamena, eta ezingo da lizitatzaileekin kontratuaren baldintzei buruzko inolako negoziaziorik egin.

7.2.2.- Adjudikazio-irizpideak.

Adjudikazio-irizpide asko erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, kalitate-prezio erlazio onena oinarritzat harturik; hala ere, salbuespen gisa adjudikazio-irizpide bakarra erabiltzen den kasuetan, kostuekin loturik egon beharko du irizpide bakar horrek: izan liteke prezioa edo errentagarritasunean oinarrituriko irizpide bat, hala nola bizi-zikloa. Agiri honen karatulako "I" atalean zehazten da hori guztia (ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK).

7.2.3.- Adjudikazio-irizpideen aplikazioa.

Balio-judizio baten arabera kuantifikatzekoak diren irizpideak ebaluatzeko (esleitua duten haztapena handiagoa delako automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei dagokiena baino), aukera bi izango dira:

- kualifikazio egokia duten adituen batzorde bat eratuko da, gutxienez hiru lagunek osatua; kide horiek kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuetakoak izan daitezke, baina inola ere ezingo dira egon kontratua proposatzen duen organoari adskribaturik.

- erakunde tekniko espezializatu bat eratuko da.

Batzorde edo erakunde tekniko espezializatua baldintza-agiri honen karatulako "I" atalean adierazitako izango da (ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK).

7.3.- Proposamenak aurkezteko epea.

Agiri honen karatulako "Q" atalean ezartzen dena bete behar da (PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA).

Egunean 24 orduz asteko 7 egunetan aurkez daitezke eskaintzak. Eskaintzaren aurkezpen-data eta -ordua

la ejecución del contrato a la que se le hubiese dado el referido carácter en los pliegos o en el contrato, o que por su propia naturaleza deba ser tratada como tal. Este deber se mantendrá durante un plazo de cinco años desde el conocimiento de esa información, salvo que los pliegos o el contrato establezcan un plazo mayor que, en todo caso, deberá ser definido y limitado en el tiempo.

7.2.- Procedimiento de adjudicación:

7.2.1.- Procedimiento.

El procedimiento establecido es el señalado en el apartado "G" (TRAMITACIÓN Y PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN) de la carátula de este pliego. En el procedimiento abierto, toda empresa interesada podrá presentar una proposición, quedando excluida toda negociación de los términos del contrato con las empresas licitadoras.

7.2.2.- Criterios de adjudicación.

La adjudicación de los contratos se realizará utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación en base a la mejor relación calidad-precio; sin embargo, en aquellos supuestos excepcionales en los que solo se utilice un criterio de adjudicación, este deberá estar relacionado con los costes, pudiendo ser el precio o un criterio basado en la rentabilidad, como el coste del ciclo de vida. Su determinación se recoge en el apartado "I" (CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN) de la carátula de este pliego.

7.2.3.- Aplicación de los criterios de adjudicación.

La valoración de los criterios cuya cuantificación dependa de un juicio de valor corresponderá, en los casos en que proceda por tener atribuida una ponderación mayor que la correspondiente a los criterios evaluables de forma automática,

- a un comité formado por expertos con cualificación apropiada, que cuente con un mínimo de tres componentes, que podrán pertenecer a los servicios dependientes del órgano de contratación, pero en ningún caso podrán estar adscritos al órgano proponente del contrato,

- a un organismo técnico especializado

El comité o el organismo técnico especializado será el que, en su caso, se señale en el apartado "I" (CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN) de la carátula de este pliego

7.3.- Plazo para presentación de proposiciones.

Se estará a lo establecido en el apartado "Q" (PLAZO PARA PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES) de la carátula de este pliego.

La presentación de ofertas podrá realizarse durante 24 horas al día los 7 días de la semana; la fecha y hora de

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren erregistro elektronikoak ematen duen frogagirian ageri direnak izango dira, eta bat etorriko dira eskaintzaren harrera amaitzen den unearekin.

Bitarteko elektronikoak erabiliz gero, bi modutara bidal daitezke eskaintzak: osorik edo bi fasetan. Bigarren aukeran, lehenenik eta behin, eskaintzaren «hash» hatz-marka elektronikoa helarazi beharko da —hatz hori jasotzearekin, egintzat hartuko da eskaintzaren aurkezpena, ondorio guztietarako—, eta, gero, eskaintza bera, gehienez ere 24 orduko epean; bigarren igorpen hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ondorioztatuko da.

Eskaintzaren «hash» hatz-marka elektronikotzat jotzen da datu-multzo bat eskaintzaren edukiarekin zalantzarik gabe loturik dagoena (datuok sortzeko prozesuaren bitartez), eta bidea ematen duena detektatzeko ea aldaketarik egon den eskaintzaren edukian. Horrela, bermaturik geratzen da eskaintza osoa, prozesu horrek modua ematen baitu egiaztatzeko ez dela edukian aldaketarik izan behin lizitatzaileak bere eskaintza bidaltzen duen unetik aurrera.

Lizitatzaileek eskaintza bi fasetan bidaltzea aukeratzen badute —esate baterako, uste dutelako eskaintzaren neurriagatik arazoak gerta litezkeela transmisioan, sareko konexio-arazoak egon litezkeela, eta abar—, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen bidali behar dute, betiere, beren eskaintzaren «hash» hatz-marka elektronikoa. Halakoetan, 24 orduko epea izango dute eskaintza bidaltzen amaitzeko, eta epe hori, hain zuzen ere, «hash» hatz-marka elektronikoa Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren posta elektronikora bidaltzen duten unean hasiko da zenbatzen. Nolanahi ere, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen egin behar da hori guztia.

Lizitatzaileek Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren posta elektronikora igorri behar dute, transkribaturik (ez irudia), beren eskaintzaren «hash» hatz-marka elektronikoa. Mezu horretan, halaber, zein espediente-zenbaki dagokion adierazi behar da, eta lizitatzailearen identifikazio-datuak eman, hartara Kontratazio Mahaiak egiazta dezan hatz-marka digitala bat datorrela aurkezturiko eskaintzaren hatz-markarekin (behin eskaintza bidalita).

Ezin bada eskaintza baten edukia eskuratu artxiboa kalteturik dagoelako, lizitatzailearen ekipoan automatikoki sortzen den kopia baliatu daiteke, eta egiaztatu eskaintzaren hatz-marka digitala bat datorrela kontratazio-organoak daukanarekin.

7.4.- Interesa duten enpresen proposamenak:

7.4.1.- Proposamena.

presentación de la oferta serán aquellas que consten en el resguardo acreditativo emitido por el Registro Electrónico de la Fundación Bizkaia Bizkaialde y coincidirá con el momento en el que finaliza la recepción de la oferta.

El envío por medios electrónicos de las ofertas podrá hacerse o bien de forma completa en un solo momento o bien en dos fases, transmitiendo primero la huella electrónica "hash" de la oferta, con cuya recepción se considerará efectuada su presentación a todos los efectos, y después la oferta propiamente dicha en un plazo máximo de 24 horas; de no efectuarse esta segunda remisión en el plazo indicado, se considerará que la oferta ha sido retirada.

Se entiende por huella electrónica "hash" de la oferta el conjunto de datos cuyo proceso de generación garantiza que se relacionan de manera inequívoca con el contenido de la oferta propiamente dicha, y que permiten detectar posibles alteraciones del contenido de ésta garantizando su integridad, toda vez, que permite comprobar que su contenido no se ha alterado desde el momento del envío por parte de la licitadora.

En aquellos casos en los que las licitadoras opten por el envío de la oferta en dos fases, por ejemplo porque se prevean dificultades en la transmisión de la oferta derivadas del tamaño de la misma, problemas de conexiones de la red, etc. deberán enviar en todo caso antes del final del plazo de presentación de ofertas la huella electrónica "hash", de su oferta. En este caso, dispondrán de un plazo de 24 horas para completar el envío de la oferta, plazo que se computará desde el momento de envío de la huella electrónica "hash" al correo electrónico de la Fundación Bizkaia Bizkaialde realizado, en todo caso antes del final del plazo de presentación de ofertas.

Las licitadoras deberán enviar la huella electrónica "hash" transcrita (no imagen) de su oferta al correo electrónico de la Fundación Bizkaia Bizkaialde con indicación del número de expediente al que se refiere junto con los datos identificativos de la licitadora con el fin de que la Mesa de Contratación pueda comprobar que dicha huella digital coincide con la huella de la oferta presentada una vez se produzca el envío de la misma.

En caso de no poder acceder al contenido de una oferta porque el archivo esté dañado, se puede recurrir a la copia local generada automáticamente en el equipo de la licitadora, comprobando que la huella digital de la oferta coincide con lo que consta en poder del órgano de contratación.

7.4.- Proposiciones de las empresas interesadas:

7.4.1.- Proposición.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

7.4.1.1.- Aurretikoa.

1. Interesdunen proposamenek lizitazioa eraentzen duten baldintza-agiri eta dokumentuen araberakoak izan behar dute, eta proposamenok aurkezteak berez dakar enpresek baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza guztien edukia, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, bai eta baimena ematea ere Kontratazio Mahaiari nahiz kontratazio-organoari honako datu hauek egiaztatzeko:

a) Enpresaren IFZ eta ordezkariaren zein enpresaburu indibidualaren NANa,

b) Lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialetan dauden datuak edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan daudenak, eta

c) Ea enpresak egunean dituen tributu-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak. Baimen horren bidez, aukera emango da kontratazio-espedientera gehitu beharreko ziurtagiriak lortzeko ere.

2. Proposamenak isilpekoak izango dira, eta irekitzen diren arte isilpean gordeko direla bermatzeko neurriak hartu behar dira.

3. Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposizio bat baino gehiago aurkeztu, aldaeren onarpenaren gainean xedatutakoa gorabehera. Horrez gain, proposamena banaka egin baldin badu, ezin izango du inolako proposamenik egin beste batzuekin aldi baterako batuta, ez eta aldi berean enpresa-elkarte baten baino gehiagotan egon. Arau horiek betetzen ez baditu, ez da onartuko lizitatzaile horrek eginiko proposamen bat ere.

7.4.1.2.-Proposamenak aurkezteko modua.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu behar dira, Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren Lizitazio Elektronikorako Plataformaren bitartez. Elektronikoki lizitatu ahal izateko, interesdunak eskaintzak aurkezteko aplikazioa deskargatu behar du aurretiaz, karatularen "H" atalean adierazten den moduan.

Lizitazio Elektronikorako Plataforman sartzeko, nahitaezkoa da lizitatzaileak egiaztagiri elektroniko bat izatea Bizkaia Bizkaialde Fundazioak onartzen duena,

https://appsec.ebizkaia.eus/SEEA002C/certificadosEnt

Eskaintza elektroniko batean eransten den fitxategi bakoitzak 75 MB izan ditzake gehienez ere, eta eskaintza osoak, berriz, 200 MB guztira.

Plataformak ez du ezartzen mugarik eskaintzari erantsi ahal zaizkion artxibo-kopuruari dagokionez.

7.4.1.1.- Previa.

1. Las proposiciones de las interesadas deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada por la empresa del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna, así como la autorización a la Mesa de Contratación y al órgano de contratación para consultar los extremos siguientes:

a) NIF de la empresa y DNI de la representante o de la persona empresaria individual,

b) Datos que obren en los distintos Registros Oficiales de Licitadores y Empresas Clasificadas o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado miembro de la Unión Europea y,

c) Acreditación de que la empresa se halla al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. Dicha autorización incluirá la posibilidad de obtener los certificados correspondientes para su incorporación al expediente de contratación.

2. Las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de su apertura.

3. Cada licitadora no podrá presentar más de una proposición, sin perjuicio de lo dispuesto sobre admisibilidad de variantes. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en unión temporal con otras si lo ha hecho individualmente o figurar en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por ella suscritas.

7.4.1.2.-Forma de presentación de las proposiciones.

Las proposiciones se presentarán electrónicamente a través de la Plataforma de Licitación Electrónica de la Fundación Bizkaia Bizkaialde. Para poder licitar electrónicamente la interesada deberá descargarse previamente la aplicación de presentación de ofertas como se indica en el APARTADO "H" de la carátula.

Para acceder a la Plataforma de Licitación Electrónica es necesario que la licitadora disponga de un certificado electrónico reconocido o cualificado admitido en la Fundación Bizkaia Bizkaialde,
https://appsec.ebizkaia.eus/SEEA002C/certificadosEnt

El tamaño máximo permitido de cada fichero individual que se anexa en una oferta electrónica está establecido en 75 MB, con un tamaño total de oferta de 200 MB.

La plataforma no establece límite alguno en el número de archivos que se pueden adjuntar a una oferta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

Hona zein formatu onartzen diren eskaintza bati erantsitako dokumentuak aurkezteko:

•.doc | .docx : Microsoft Word-eko jatorrizko testu-formatuak.

•.xls | .xlsx : Microsoft Excel-eko kalkulu-orrien jatorrizko formatuak.

•.ppt |.pptx : Microsoft PowerPoint-eko jatorrizko aurkezpen-formatua.

•.rtf : Testu-formatu estandarra.

•.sxw : Star Office-eko jatorrizko testu-formatua.

•.abw : Abiword-eko jatorrizko testu-formatua.

•.pdf : Adobe Acrobat-eko jatorrizko dokumentu-formatua.

•.jpg : Formatu grafikoa.

•.bmp : Microsoft Windows-eko jatorrizko formatu grafikoa.

•.tiff | .tif : Formatu grafikoa.

•.odt : OpentDocument testu-formatua.

•.ods : OpentDocument kalkulu-orrien formatua.

•.odp : OpentDocument aurkezpen-formatua.

•.odi : OpentDocument irudi-formatua.

•.zip : Winzip-eko jatorrizko trinkotze-formatua, Microsoft Windows-ek onartua.

•.dwg : AutoCAD-eko marrazketa-formatua.

Aukera gisa, beste formatu batzuetako artxiboak eransteko, artxibo trinkotu batean bil daitezke (ZIP).

Lizitatzaileen ardura da eskaintzak birusik gabe bidaltzea.

Hala ere, artxibo batek birusa izateak, berez, ez du esan nahi eskaintza baztertua izango denik, baldin eta haren edukia eskuratzeko modua bada.

Kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta, Bizkaia Bizkaialde Fundazioko Kontratazio Mahaiak hartuko du horren gaineko erabakia.

7.4.2.- Aldaerak.

Baldintza-agiri honen karatulako "M" atalean ezartzen dena bete beharko da (ALDAEREN ONARPENA).

7.4.3.- Aurkeztu beharreko agiriak:

7.4.3.1.- Arau orokorrak:

Los formatos admitidos para los documentos que se anexan en la presentación de una oferta son los siguientes:

•.doc | .docx : Formatos de texto nativos de Microsoft Word.

•.xls | .xlsx : Formato de hoja de cálculo nativo de Microsoft Excel.

•.ppt |.pptx : Formato de presentación nativo de Microsoft PowerPoint.

•.rtf : Formatos de texto estándar.

•.sxw : Formato de texto nativo Star Office.

•.abw : Formato de texto nativo de Abiword.

•.pdf : Formato documental nativo de Adobe Acrobat.

•.jpg : Formato gráfico.

•.bmp : Formato gráfico nativo de Microsoft Windows.

•.tiff | .tif : Formato gráfico.

•.odt : Formato OpentDocument texto.

•.ods : Formato OpentDocument hoja de cálculo.

•.odp : Formato OpentDocument presentación.

•.odi : Formato OpentDocument imagen.

•.zip : Formato comprimido nativo de Winzip y soportado por Microsoft Windows.

•.dwg : Formato de dibujo AutoCAD.

Como medida alternativa para adjuntar archivos de otros formatos, se pueden envolver en un archivo comprimido (ZIP).

Es responsabilidad de las personas licitadoras velar porque las ofertas estén libres de virus.

No obstante, la mera presencia de virus no determina la exclusión de la oferta, siempre que se pueda acceder a su contenido.

Atendiendo a las circunstancias que concurran en cada caso, será la Mesa de Contratación de la Fundación Bizkaia Bizkaialde la que decida al respecto.

7.4.2.- Variantes.

Se estará a lo establecido en el apartado "M" (AUTORIZACIÓN DE VARIANTES) de la carátula de este pliego.

7.4.3.- Documentación a presentar:

7.4.3.1.- Reglas generales:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

1.- Gutun-azalen kopurua.

GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO BI: adjudikazio-irizpide bakarra ezartzen bada, edo ezarritako adjudikazio-irizpide guztiak automatikoki kuantifika badaitezke:

"A" GUTUN-AZAL elektronikoa (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa).

"B" GUTUN-AZAL elektronikoa (dokumentazio teknikoa eta automatikoki kuantifikatu daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzkoa).

HIRU GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO: automatikoki kuantifika daite(z)keen edo automatikoki ezin kuantifika daite(z)keen irizpidea(k) ezartzen bad(ir)a:

"A" GUTUN-AZAL elektronikoa (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa).

"B" GUTUN-AZAL elektronikoa (automatikoki kuantifika daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazioa).

"C" GUTUN-AZAL elektronikoa (automatikoki kuantifika ezin daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazioa).

Baldintza-agiri honen karatulako "I" atalean zehazten da (ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK) zer dokumentazio den beharrezkoa adjudikazio-irizpideak haztatzeko.

2.- Hizkuntza.

Gaztelaniaz edo euskaraz aurkez dezakete enpresa lizitatzaileek beren dokumentazioa.

7.4.3.2.- "A" GUTUN-AZAL elektronikoan, honako dokumentazio hau sartu behar da (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa):

1.- Europar Batasuneko Kontratazioko Agiri Bakarra (EKAB), sinatzeko ahalorde nahikoa duenak sinatua. Agiri hori Europako Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko (EE) 2016/7 Exekuzio Erregelamenduak ezartzen du (EBAO L 3/16, urtarrilaren 3koa). EKAB agiria erregelamendu horren II. ERANSKINAren arabera bete behar da. Helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke:

https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

EKAB agiria betetzeko, lagungarria da Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak egindako gida, hain zuzen ere, 2016ko apirilaren 6ko Ebazpen bidez onartu zen Gomendiokoa (BOEn argitaratu zen, 85. zenbakian, 2016ko apirilaren 8an). Gomendio hori helbide elektroniko honetan kontsultatu daiteke:

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2016-3392

Lizitazioan eskatzen den bitartekoen atxikipenaren

1.- Número de sobres.

DOS SOBRES ELECTRÓNICOS: si se establece un único criterio de adjudicación o los criterios de adjudicación establecidos son todos cuantificables automáticamente:

SOBRE electrónico "A" (documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos).

SOBRE electrónico "B" (documentación técnica y relativa a lo/s criterio/s cuantificable/s automáticamente).

TRES SOBRES ELECTRÓNICOS: si se establecen criterio/s de adjudicación cuantificable/s automáticamente y no cuantificable/s automáticamente:

SOBRE electrónico "A" (documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos).

SOBRE electrónico "B" (documentación relativa a lo/s criterio/s cuantificable/s automáticamente).

SOBRE electrónico "C" (documentación relativa a lo/s criterio/s no cuantificable/s automáticamente).

La documentación necesaria para la ponderación de los criterios de adjudicación se detalla en el apartado "I" (CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN) de la carátula de este pliego.

2.- Idioma.

Las empresas licitadoras presentarán la documentación en castellano o en euskera.

7.4.3.2.- En el SOBRE electrónico "A" (documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos) se introducirá la siguiente documentación:

1.- Documento Europeo Único de Contratación (DEUC) establecido por el Reglamento de ejecución (UE) 2016/7 de la Comisión, de 5 de enero de 2016 (DOUE L 3/16, de 3 de enero), firmado por quien tenga poder suficiente para ello. El DEUC deberá ser cumplimentado conforme al ANEXO 2 del citado Reglamento, estando disponible en la siguiente dirección electrónica:

https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

Para la cumplimentación del DEUC servirá de ayuda la guía elaborada por la Junta Consultiva de Contratación Administrativa del Estado, en su Recomendación aprobada por resolución de 6 de abril de 2016 y publicada en el Boletín Oficial del Estado nº 85, de 8 de abril de 2016, la cual puede consultarse en la siguiente dirección electrónica:

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2016-3392

En caso de que la adscripción de medios exigida se cumpla

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

baldintza lizitatzailearenak ez diren bitartekoen bidez betetzen bada, EKAB agiri bat aurkeztu beharko da lizitatzaileagatik eta beste halako agiri bana kontratuaren exekuzioari atxikitako bitarteko bakoitzeko.

Zenbait enpresa aldi baterako elkartea osatuz aurkezten badira lizitaziora, elkartea osatzen duten enpresetariko bakoitzak bere nortasuna, gaitasun eta kaudimena egiaztatu beharko du; beraz, enpresa guzti-guztiek aurkeztu beharko dute EKAB agiriaren inprimaki normalizatu bana.

Kontratazio-organoak edo mahaiak lizitatzaileei eska diezaiekete egiaztagiri guztiak edo hain parte bat aurkezteko, baldin eta uste badute badela adierazpen baten indarraldiari edo fidagarritasunari buruzko duda arrazoizkorik, beharrezkoa bada prozedura zuzen egin dadin eta, edozelan ere, kontratua adjudikatu aurretik, SPKLren 69. artikuluan ezartzen den moduan.

Hori guztia gorabehera, ondoren aipatzen diren erregistro eta datu-baseetan inskribatuta edo jasota egonez gero, enpresa ez da beharturik egongo toki horietan jasota dauden datuen frogagiriak edo dokumentu bidezko frogak aurkeztera, baldin eta organoak doan sar badaitezke bertara: Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala; Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroa; Bizkaiko Foru Aldundiko Lizitatzaileen Erregistro Ofiziala, edo Europar Batasuneko estatu kide baten datu-baseren bat, hala nola enpresaren espediente birtual bat, dokumentuen biltegiratze elektronikoko sistema bat edo aurresailkapeneko sistema bat.

Gainera, goian aipaturiko hiru erregistro ofizialetan inskribaturik dauden enpresak (Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala, EAEko Enpresa Sailkatuen Lizitatzaileen Erregistro Ofiziala edo Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzaileen Erregistro Ofiziala) ez dira behartuta egongo erregistrootan eguneraturik dauden datuak ematera, baldin eta hala dela adierazten badute EKAB agiriaren inprimaki normalizatuan.

Enpresen gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko baldintzek (goraxeago aipatuak) indarrean egon behar dute eskaintzak aurkezteko azken egunean, eta beren horretan iraun behar dute kontratua burutzeko orduan ere.

Edozelan ere, EBAK agiria aurkezteak konpromiso bat ekarriko du berekin lizitatzailearentzat; alegia, kontratuaren adjudikazio-proposamena beraren aldeko izanez gero, agiri horrek ordezkatzen dituen dokumentuak aurkeztuko dituela.

con medios externos a la licitadora, deberá presentarse un DEUC por la licitadora y por cada uno de los medios adscritos a la ejecución del contrato.

Si varias empresas concurren constituyendo una unión temporal, cada una de las que la componen deberá acreditar su personalidad, capacidad y solvencia, presentando todas y cada una de ellas un inprimaki normalizado del DEUC.

El órgano o la mesa de contratación podrán pedir a las licitadoras que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato, ello en los términos del artículo 69 de la LPAC.

No obstante lo anterior, cuando la empresa esté inscrita en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público; en el Registro Oficial de Licitadores de empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma de Euskadi; en el Registro Oficial de Licitadores de la Diputación Foral de Bizkaia; figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y estos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares.

Además, las empresas que figuren inscritas el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en el Registro Oficial de Licitadores de empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma de Euskadi o en el Registro Oficial de Licitadores de la Diputación Foral de Bizkaia no estarán obligadas a facilitar aquellos datos que ya figuren inscritos de manera actualizada, siempre y cuando se indique dicha circunstancia en el formulario normalizado del DEUC.

Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refieren los apartados anteriores, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato.

En cualquier caso la presentación del DEUC por la licitadora conlleva el compromiso de que, en caso de que la propuesta de adjudicación del contrato recaiga a su favor, se aportarán los documentos justificativos a los que sustituye.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

2.- Erantzukizunpeko adierazpena, non enpresa lizitatzaileak adierazten duen betetzen dituela kontratazio hau arautzen duten baldintza-agirietan ezartzen diren baldintzak, eta onartzen dituela baldintza-agirion onarpenak berekin dakartzan konpromisoak. Hori 2. ERANSKINA jarraituz egin behar da.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, enpresa bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du.

3. Aldi baterako enpresa-elkarteek, beste agiri batean, adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzaren izena eta inguruabarrak, bai eta bakoitzak duen partaidetzaren ehunekoa ere; horrez gainera, kontratuak indarrean dirauen artean Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren aurrean elkartearen ordezkaritza osoa izango duen pertsona izendatu behar dute. Eta, beste alde batetik, konpromisoa hartuko dute formalki aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko baldin eta kontratuaren adjudikaziodun suertatzen badira. Horretarako, 8. ERANSKINA hartuko dute eredutzat: "ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOA".

4.- Talde bereko enpresen zerrenda.- Eskaintza bat baxuegia dela xedatzeko, sozietate-talde bateko kide diren pertsona juridikoen kasuetan, enpresa lizitatzaileek taldeko partaide diren sozietateen zerrenda aurkeztu beharko dute, 2. ERANSKINAren arabera.

5.- Atzerriko enpresek, baldin eta kontratua Espainian gauzatuko bada, eta kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, adierazpen bat aurkeztu behar dute, non jakinaraziko duten Espainiako mota guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla eta uko egiten diotela lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari, kasua hori bada.

7.4.3.3.- "B" GUTUN-AZAL elektronikoan (automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko agiriak), honako dokumentazio hau sartu behar da:

Automatikoki kuantifika daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Baldintza-agiri honen karatulako "I.1" atalean zehazten dira (AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITE(Z)KEEN IRIZPIDEA/K).

Eskaintzak isilpeko edukiak baditu, 6. ERANSKINA bete behar da, eta artxibo bereizietan banakatu. Halakoetan, ISILPEKOA hitzarekin hasi behar da artxiboaren izena. Eskaintza ekonomikoa ezin da inoiz isilpekoa izan.

Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoak honako baldintza

2.-Declaración responsable de la empresa licitadora indicando que cumple las condiciones establecidas en los pliegos que rigen la presente contratación, así como que asume los compromisos correspondientes derivados de la aceptación de los pliegos. Ello según ANEXO 2.

En el caso de las Uniones Temporales de empresas, cada una de las componentes aportará su declaración responsable.

3. Las Uniones Temporales de Empresas deberán indicar en documento aparte los nombres y circunstancias de las que la suscriben, el porcentaje de participación de cada una de ellas y designar la persona que durante la vigencia del contrato ha de ostentar la plena representación de todas ante la Fundación Bizkaia Bizkaialde. Asimismo, señalarán el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarias del contrato, ello conforme al modelo de "COMPROMISO CONSTITUCIÓN DE U.T.E.", ANEXO 8

4.- Relación de empresas pertenecientes al mismo grupo.- A los efectos de determinar las ofertas anormalmente bajas, en el supuesto de personas jurídicas pertenecientes a un grupo de sociedades, las empresas licitadoras deberán presentar relación de las sociedades pertenecientes al grupo, ello conforme al ANEXO 2.

5.- Las empresas extranjeras, en los casos en que el contrato vaya a ejecutarse en España, deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados y tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la licitadora.

7.4.3.3.- En el SOBRE electrónico "B" (documentación relativa a lo/s criterio/s cuantificable/s automáticamente) se introducirá la siguiente documentación:

Deberán presentar toda la documentación necesaria para la ponderación de lo/s criterio/s de adjudicación cuantificable/s automáticamente y que se detalla en el apartado "I.1 (CRITERIO/S CUANTIFICABLE/S AUTOMÁTICAMENTE)" de la carátula.

Si la oferta tuviese contenidos confidenciales, deberá cumplimentarse el ANEXO 6 y desglosarse en archivos independientes, comenzando el nombre del archivo con la palabra CONFIDENCIAL, caso de tener dicho carácter. En ningún caso tendrá carácter confidencial la oferta económica.

En todo caso, la oferta económica:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

hauek bete behar ditu:

a) Partida bereizi legez jasoko du ezarri beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

b) 1. ERANSKINA eredutzat hartuta beteko da (ezingo du inoiz lizitazio-aurrekontua baino handiagoa izan), sinatu eta data jarriko zaio.

c) Ondorio guztietarako, aurkeztu den eskaintzak honako hauek guztiak jasotzen dituela ulertuko da: prestazioaren zenbatekoa, gastu egozgarriak, beste gastu batzuk, eta aseguru, muga-zerga, lizentzia eta baimen guztiak.

7.4.3.4.- "C" GUTUN-AZAL elektronikoan, honako dokumentazio hau sartu behar da (automatikoki kuantifika ezin daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko agiriak):

Automatikoki kuantifika **ezin** daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute. Karatulako "I.2" atalean zehazten da dokumentazio hori (AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA EZIN DAITE(Z)KEEN IRIZPIDEA/K).

Eskaintzak isilpeko edukiak baditu, artxibo bereizietan banakatu beharko da. Halakoetan, ISILPEKOA hitzarekin hasi behar da artxiboaren izena.

Azpikontratazioen kasuan, lizitatzaileek kontratuaren zein atal azpikontratatzeko asmoa duten zehaztu behar dute eskaintzan. Kontratuaren atal horren zenbatekoa ere adierazi behar dute, eta azpikontratistaren izena edo enpresa-profila ere eman behar dute, gaitasun profesional edo teknikoen baldintzen arabera zehaztua.

7.4.3.5.- Erreferentzia teknikoak

Baldintza teknikoen agirian beren-beregi aipatzen diren beste dokumentu guztiak gehitu beharko ditu lizitatzaileak, haien bitartez egiaztatu ahal izan dadin eskaintzak betetzen dituela eskatu arren baloratuko ez diren zehazpen teknikoak. Erreferentzia teknikoak "C" gutun-azal elektronikoan sartu behar dira, gutun-azal horretan aurkeztea eskatzen bada, eta, hala egiten ez bada, "B" gutun-azal elektronikoan.

7.5.- Enpresa lizitatzailearen ondorengoa izatea prozeduran

Prozedura baten tramitazioan zehar (eta **kontratua formalizatu aurretik)** enpresaren bat-egitea edo bereizketa gertatzen bada edo enpresa-ondarearen nahiz jarduera-adar baten eskualdatzea, orduan enpresa lizitatzailearen ondorengo izango dira, lizitazio-prozeduran, sozietate xurgatzailea, bategitearen ondorioz sorturikoa, bereiztearen onuraduna edo enpresa-ondarea

a) Indicará como partida independiente el Impuesto sobre el Valor Añadido que deba ser repercutido.

b) La oferta económica se cumplimentará según ANEXO 1 (en todo caso, no podrá superar el presupuesto de licitación), debidamente firmada y fechada.

c) A todos los efectos, se entenderá que la oferta presentada comprende el importe de la prestación, gastos repercutibles, otros costes, seguros, aranceles, licencias y autorizaciones de todo tipo que recaigan sobre la prestación.

7.4.3.4.- En el SOBRE electrónico "C" (documentación relativa a lo/s criterio/s no cuantificable/s automáticamente) se introducirá la siguiente documentación:

Deberán presentar toda la documentación necesaria para la ponderación de lo/s criterio/s de adjudicación **no** cuantificable/s automáticamente y que se detalla en el apartado "I.2 (CRITERIO/S NO CUANTIFICABLE/S AUTOMÁTICAMENTE) "de la carátula.

Si la oferta tuviese contenidos confidenciales, deberá desglosarse en archivos independientes, comenzando el nombre del archivo con la palabra CONFIDENCIAL, caso de tener dicho carácter.

En su caso, las licitadoras deberán indicar en la oferta la parte del contrato que tengan previsto subcontratar, señalando su importe, y el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de las subcontratistas a las que se vaya a encomendar su realización.

7.4.3.5.- Referencias Técnicas

La licitadora deberá incluir cualesquiera otros documentos que se indiquen expresamente en el Pliego de Prescripciones Técnicas y que permitan verificar que la oferta cumple con las especificaciones técnicas requeridas, pero que no van a ser objeto de valoración. Dichas referencias técnicas se incluirán en el Sobre electrónico"C" en el caso de que se haya solicitado su presentación en dicho sobre y, en caso contrario, en el Sobre electrónico "B".

7.5.- Sucesión de la empresa licitadora en el procedimiento.

Si durante la tramitación de un procedimiento y **antes de la formalización** del contrato se produjese una operación de fusión, escisión, transmisión del patrimonio empresarial o de una rama de la actividad, sucederá a la empresa licitadora o candidata en su posición en el procedimiento la sociedad absorbente, la resultante de la fusión, la beneficiaria de la escisión o la adquirente del

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

nahiz jarduera-adarra eskuratzen duena, baldin eta gaitasun-baldintzak betetzen baditu, kontratatzeko debekurik ez badu eta kaudimen nahikoa egiaztatzen badu, administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko eskatzen den moduan.

Aldi baterako enpresa-elkarteei dagokienez, berriz, SPKLren 69.8 artikuluan ezartzen dena beteko da.

patrimonio empresarial o de la correspondiente rama de actividad, siempre que reúna las condiciones de capacidad y ausencia de prohibición de contratar y acredite su solvencia en las condiciones exigidas en la carátula de este pliego de cláusulas administrativas particulares para poder participar en el procedimiento de adjudicación.

En relación a la sucesión en caso de uniones temporales de empresas, se estará a lo establecido en el artículo 69.8 de la LCSP.

7.6.- Eskaintzen balorazioa.

7.6.- Valoración de las ofertas.

7.6.1.- Organo eskuduna.

7.6.1.- Órgano competente.

Kontratazio Mahaia: Bizkaia Bizkaialde Fundazioko kontratazio-organoei laguntza tekniko espezializatua emateko kide anitzeko organoa da, eta eskumena du Bizkaia Bizkaialde Fundazioak sustatzen dituen kontratuen adjudikazio-prozeduretan eskaintzak ebaluatzeko. Halaber, lizitazio-prozeduran zehar beteko ditu bere eginkizunak, hau da, eskaintzak edo proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik kontratua adjudikatu arte, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen indarreko legeak eta haren osagarri diren xedapenek ematen dizkioten eskumenekin.

Mesa de Contratación: Es el órgano colegiado de asistencia técnica especializada a los órganos de contratación de la Fundación Bizkaia Bizkaialde y competente para la valoración de las ofertas en los procedimientos de adjudicación de los contratos promovidos por la Fundación Bizkaia Bizkaialde; asimismo, ejercerá sus funciones durante el procedimiento licitatorio, esto es, entre la finalización del plazo para la presentación de ofertas o proposiciones y la adjudicación del contrato, con la competencia que le atribuya la Ley reguladora vigente en materia de Contratos del Sector Público y sus disposiciones complementarias.

Osaera.-Kontratu honen ondoreetarako, bost kidez osaturik egongo da Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren Kontratazio Mahaia; alegia, mahaiburutzaren arduraduna, hiru mahaikide titular eta idazkaria. Hona mahaia osatzen dutenen zerrenda:

Composición.- Integran la Mesa de Contratación de la Fundación Bizkaia Bizkaialde a los efectos de este contrato una persona responsable de la Presidencia, tres personas titulares de las Vocalías y una de la Secretaría, según la siguiente relación:

- Mahaiburu titularra: Carlos Sergio Achotegui.

-Presidencia titular: Carlos Sergio Achotegui.

- Mahaikide titularra: Asier Haza del Cerro.

-Vocal titular: Asier Haza del Cerro.

- Mahaikide titularra: Olatz Unzurrunzaga Muro.

-Vocalía titular:.Olatz Unzurrunzaga Muro.

- Mahaikide titularra: Miren Arantza Mardaras Izarza.

-Vocalía titular: Miren Arantza Mardaras Izarza.

Mahaikideen ordezkoa: Amaia Bikandi Llano.

Suplente de las vocalías: Amaia Bikandi Llano.

Idazkari titularra: Igor Estankona Bilbao.

- Secretaría titular:.Igor Estankona Bilbao.

Mahaikide guztiek izango dute hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea, idazkariak izan ezik, hitz egitekoa baino ez baitu izango. Mahaiaren bileretara, aztertu beharreko gaia dela eta, beharrezkoak diren funtzionarioak edo aholkulariak joaten badira, hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa ematekoa.

Todas las personas que integran la Mesa tendrán voz y voto, a excepción de la persona que ostente la Secretaría que solo tendrá voz. En el caso de que asistan a las reuniones de la Mesa personas funcionarias o asesoras que resulten necesarias según la naturaleza del asunto a tratar, actuarán con voz pero sin voto.

Eraketa.- Kontratazio Mahaia behar bezala eratzeko, mahaiko kideen gehiengoa bildu beharko da, eta, edozelan ere, mahaiburua, idazkaria eta mahaikideetariko bat.

Constitución.- Para la válida constitución de la Mesa de Contratación deberán estar presentes la mayoría de las personas que la componen y, en todo caso, quien ocupe la Presidencia, la Secretaría y una de las vocalías.

Erabakiak hartzea.- Kontratazio Mahaiaren erabakiak

Adopción de acuerdos.- Los acuerdos de la Mesa de

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

gehiengo soilez hartuko dira, eta, balioa izan dezaten, ezinbestekoa izango da une bakoitzean mahaiko kideen gehiengo osoa bileran izatea.

Contratación se adoptarán por mayoría simple y para su válida adopción se requerirá la asistencia de la mayoría absoluta de las personas componentes de la Mesa en cada momento.

7.6.2.- Proposamenak irekitzea

7.6.2.- Apertura de proposiciones

7.6.2.1.- Proposamenak irekitzea

Proposamenen gutun-azala irekitzeko **epea hogei egun izango da gehienez ere**, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

"B" GUTUN-AZAL elektronikoak jendaurrean irekiko dira, honako egun eta leku hauetan:

Lekua	Rekalde zumardia 30. 48009 BILBO
Eguna eta ordua	Kontratatzailearen profilean adierazten dena izango da.

7.6.2.1.- Apertura de proposiciones

La apertura de las proposiciones deberá efectuarse en el **plazo máximo de veinte días** contado desde la fecha de finalización del plazo para presentar las mismas.

La apertura de los SOBRES electrónicos "B" se realizará en acto público y se celebrará:

Lugar	Alda. de Rekalde nº 30. 48009 BILBAO
Fecha y hora	La fecha será la señalada en el perfil de contratante.

Kontratazio Mahaiak, bere proposamena egin aurretik, beharrezko irizten zaizkion txosten tekniko guztiak eska ditzake. Halaber, eskaintzek pleguetan ezarritako espezifikazio teknikoak betetzen dituztenetz egiaztatu behar denean ere eskatu ahal izango dira txosten horiek.

La Mesa de Contratación podrá solicitar, antes de formular su propuesta, cuantos informes técnicos considere precisos. Igualmente, podrán solicitarse estos informes cuando sea necesario verificar que las ofertas cumplen con las especificaciones técnicas del pliego.

Behean zerrendatzen diren Kontratazio Mahaiaren jarduketen akta egin beharko da, eta akta horiek mahaiaren idazkariak sinatuko ditu, mahaiburuaren oniritziarekin.

De las actuaciones de la Mesa de Contratación relacionadas a continuación se levantará acta que será firmada por la persona responsable de la secretaría de la Mesa con el visto bueno de la Presidencia.

7.6.2.2.- "A" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

Lehenengo eta behin, Kontratazio Mahaia behar bezala deitu eta eratuko da, eta mahaiburuak aginduko du saio pribatu batean ireki daitezela "A" GUTUN-AZAL elektronikoak (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa), eta lizitatzaileek garaiz eta forma egokian aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko du. Era berean, egiaztatuko du ea gutunetan jasota dauden baldintza-agiri honetan aipatzen diren dokumentu, adierazpen eta erantzukizunpeko adierazpenak.

7.6.2.2.- APERTURA DEL SOBRE ELECTRÓNICO "A":

En primer lugar, la Mesa de Contratación debidamente convocada se constituirá y la presidencia ordenará la apertura de los SOBRES electrónicos "A" (documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos) en sesión privada y calificará la documentación presentada por las licitadoras en tiempo y forma. Asimismo, verificará que constan los documentos, manifestaciones y declaraciones responsables indicadas en este pliego.

Mahaiak ikusten badu badirela aurkeztutako dokumentazioan akats konpongarriak edo aurkeztu gabeko agiriak, horiek zuzentzeko izapidea bideratuko du. Horretarako, kontratatzailearen profilean argitaratuko du zuzentzeko errekerimendua, hargatik eragotzi gabe horiek konpontzeko egoki ikusten dituen beste bide batzuk ere erabiltzea. Dokumentazioan diren kasuan kasuko akatsak konpontzeko lizitatzaileek egin beharreko zuzenketak Bizkaia Bizkaialde Fundazioko lizitazio elektronikoko Plataforman egingo dira. Horretarako, **hiru (3) eguneko epea** emango da Euskadiko Kontrataziorako Plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Si la Mesa observare defectos u omisiones subsanables en la documentación, realizará el trámite de subsanación y, a tal fin, el requerimiento de subsanación lo publicará en el perfil de contratante, sin perjuicio de la utilización de otros medios que se estimen pertinentes a tal efecto. Las subsanaciones que se deban realizar , en su caso, por las personas licitadoras, se realizaran a través de la Plataforma de licitación electrónica de la Fundación Bizkaia Bizkaialde. Para la subsanación de dicha documentación se concederá un plazo de **tres (3) días** contados a partir del día siguiente al de su publicación en la Plataforma de Contratación de Euskadi.

7.6.2.3.- "C" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA (**automatikoki kuantifika EZIN daitezkeen** edo balio-

7.6.2.3.- APERTURA DEL SOBRE ELECTRÓNICO "C" (en los casos que existan **criterio/s de adjudicación NO**

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

judizio baten arabera kuantifikatzekoak diren irizpideak daudenean)

Kontratazio Mahaia bilkura pribatuan eratuko da, eta, behin aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko aurkeztutako agirien akatsak eta aurkeztu gabekoen arazoak konpondu ondoren (hala dagokionean), dokumentazioa ebaluatuko du. Horren ostean, beren-beregi adieraziko du zein enpresa onartzen den lizitaziorako, zein ez den onartzen eta zergatik ez diren onartuak izan.

Jarraian, bilkura pribatu berean, mahaiburuak aginduko du ireki eta azter daitezela onarturiko enpresa lizitatzaileen "C" GUTUN-AZAL elektronikoak.

Halaber, egoki irizten zaizkion txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu proposamenak ebaluatzeko. Horrek ez du eragotziko, ordea, SPKLren 146.2 a) artikuluan aipatzen diren adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak parte hartu ahal izatea, artikulu berean aurreikusten diren kasuetan.

Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira geroago ebaluatzekoa den dokumentazioa "C" GUTUNAZAL elektronikoan sartzen duten lizitatzaileak (agiriok "B" GUTUN-AZAL elektronikoa irekitzean aztertzekoak baitira).

7.6.2.4.- "B" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA:

a) **Zenbait adjudikazio-irizpide** ezarri diren kasuetan (direla **automatikoki kuantifika daitezkeenak**, direla **automatikoki EZIN kuantifika daitezkeenak**), honela jokatuko du Kontratazio Mahaiak:

Kontratazio Mahaiaren idazkaritzak eskatutako txostena(k) jasotzen d(it)uenean (halakorik eskatu badu), automatikoki kuantifikatu **ezin** daitezkeen irizpideak haztatzeko, Mahaia osatuko da, eta, ekitaldi publiko batean, honako hau jakinaraziko du: lehenik eta behin, zein lizitatzaile onartzen diren lizitaziorako, zein ez den onartzen eta ez onartzeko arrazoiak; eta, bigarren, automatikoki kuantifikatu **ezin** daitezkeen irizpideei buruzko eskaintzei emandako haztapena.

Lizitaziorako eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak ez dira baloratuko, eta prozeduratik kanpo geratuko dira.

Jarraian, "B" GUTUN-AZAL elektronikoak irekiko dira (automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideen dokumentazioa), eta eskaintza ekonomikoak irakurriko. Baldintza-agiri honen karatulan adierazten diren irizpideen arabera ebaluatuko da gutun-azal elektronikootan jasotako dokumentazioa.

b) **Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak** bakarrik ezarri diren kasuetan, Mahaia eratuko da, eta, jendaurreko

cuantificable/s automáticamente o sometidos a juicio de valor)

La Mesa de Contratación se constituirá en sesión privada y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos presentada, valorará dicha documentación realizando pronunciamiento expreso sobre las licitadoras admitidas a la licitación, las rechazadas y sobre las causas de su rechazo.

Seguidamente, en la misma sesión privada, la Presidencia ordenará la apertura y examen de los SOBRES electrónicos "C" correspondientes a las empresas licitadoras admitidas.

Asimismo, para la valoración de las proposiciones podrá solicitar cuantos informes técnicos considere oportunos. Ello, sin perjuicio de la intervención del comité formado por personas expertas o del organismo técnico especializado a los que hace referencia el artículo 146.2 a) de la LCSP en los casos previstos en el mismo.

Se excluirá del procedimiento de licitación a aquellas licitadoras que incorporen en el SOBRE electrónico "C" documentación que deba ser objeto de evaluación posterior (en la apertura del SOBRE electrónico "B)".

7.6.2.4.- APERTURA DEL SOBRE ELECTRÓNICO "B":

a) Para el caso de que se hayan establecido **varios criterios** de adjudicación, **cuantificable/s automáticamente** y **NO cuantificable/s automáticamente**, la Mesa de Contratación procederá del modo siguiente:

Una vez recibido/s en la secretaría de la Mesa de Contratación, el/los informe/s solicitado/s, en su caso, con el fin de ponderar el/los criterio/s **no** cuantificable/s automáticamente, se constituirá la Mesa y, en acto público, comunicará: en primer lugar, las licitadoras admitidas a la licitación, las rechazadas y las causas de su rechazo; y, en segundo lugar, dará a conocer la ponderación asignada a las ofertas relativas a los criterios **no** cuantificables automáticamente.

Las propuestas que no cumplan las condiciones técnicas exigidas no serán objeto de valoración, quedando excluidas del procedimiento.

Seguidamente se procederá a la apertura de los SOBRES electrónicos "B" (documentación de criterio/s cuantificable/s automáticamente) dando lectura de las ofertas económicas. La documentación contenida en dichos SOBRES electrónicos será evaluada conforme a los criterios expresados en la carátula de este pliego.

b) Para el caso de que se hayan establecido únicamente **criterio/s** de adjudicación **cuantificable/s**

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

egintza batean, jakinaraziko du zein lizitatzaile onartu diren, zein baztertu eta zergatik baztertu diren; gero, B GUTUN-AZAL elektronikoak irekiko dira, goiko a) kasuan azaldu den modura berean.

7.6.2.5.- Kontratazio Mahaiaren egintzen emaitza publiko egitea.

Kontratazio Mahaiak kalifikazioen, onarpenen eta bazter utzitakoen gainean egiten dituen akta guztiak publikatuko dira kontratatzailearen profilean, profila iragarki-taula gisa erabiliko baita.

7.6.2.6.- Eskaintza baxuegiak.

SPKLren 149. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da zein diren eskaintza baxuegiak. Kontratazio-organoak sumatzen badu eskaintza bat ez dela bideragarria aurkeztu den moduan baxuegia delako, lizitazio-prozeduratik hura baztertu ahal izateko, aurretiaz 149. artikuluan ezartzen den prozedura izapidetu beharko du nahitaez.

Adjudikazio-irizpide bakarra prezioa denean, eskaintza bat baxuegia dela zehazteko, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. eta 86. artikuluetan horrexetarako jasotzen diren arauak aplikatuko dira, harik eta SPKLren Erregelamendua onartu eta indarrean sartu arte.

Zenbait adjudikazio-irizpide erabiltzen direnean, berriz, jarraitu behar zaio baldintza-agiri honen karatulako "I" atalean ezartzen denari (ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK), han ezartzen dira-eta zenbait parametro objektibo modua ematen dutenak identifikatzeko noiz ez den eskaintza bat normala, eskaintza bera osorik kontuan hartuta.

Talde bereko kide diren enpresek nork bere eskaintzak aurkezten badituzte (Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluaren arabera ulertuz talde berekoak direla), haietariko baxuena bakarrik hartuko da kontuan ustez baxuegiak diren eskaintzak identifikatzeko araudia aplikatzeko orduan. Horretarako, ez da kontuan hartuko eskaintza bakarka aurkeztu duten edo taldekoak ez diren baina aldi baterako elkartea osaturik haiekin batera datozen beste enpresa batekin edo batzuekin.

Kontratazio Mahaiak ustez normalak ez diren eskaintza bat edo batzuk identifikatzen dituenean, errekerimendua egin beharko die eskaintzok aurkeztu dituzten lizitatzaileei, eta nahikoa epea eman, modu arrazoituan eta zehaztasunez justifika eta xeha dezaten prezioen edo kostuen maila baxua, edo beste edozein parametro, eskaintza ez-normaltzat jotzeko oinarritzat erabili dena. Justifikazio-xehetasunok emateko, egoki diren informazioa eta agiriak aurkeztuko dituzte

automáticamente, se constituirá la Mesa y, en acto público, comunicará las licitadoras admitidas a la licitación, las rechazadas y las causas de su rechazo; después, procederá a la apertura de los SOBRES electrónicos "B", del mismo modo que se ha descrito para el supuesto a).

7.6.2.5.- Publicidad del resultado de los actos de la Mesa de Contratación.

Todas las actas de la Mesa de Contratación de calificación, admisión o exclusión de las ofertas se publicarán en el perfil de contratante, que actuará como tablón de anuncios.

7.6.2.6.- Ofertas anormalmente bajas.

La determinación de las ofertas anormalmente bajas se realizará según lo establecido en el artículo 149 de la LCSP. En los casos en que el órgano de contratación presuma que una oferta resulta inviable por haber sido formulada en términos que la hacen anormalmente baja, solo podrá excluirla del procedimiento de licitación previa tramitación del procedimiento que establece en dicho artículo 149.

En el caso de que el único criterio de adjudicación sea el precio se aplicarán, para su determinación, las reglas recogidas para apreciar las ofertas anormalmente bajas en los artículos 85 y 86 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, en tanto no se apruebe y entre en vigor el Reglamento de la LCSP.

Cuando se utilicen una pluralidad de criterios de adjudicación, se estará a lo establecido en el apartado "I" (CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN) de la carátula de estos pliegos, en la que se determinan los parámetros objetivos que permitan identificar los casos en que una oferta se considere anormal, referidos a la oferta considerada en su conjunto.

Cuando hubieren presentado ofertas empresas que pertenezcan a un mismo grupo, en el sentido del artículo 42.1 del Código de Comercio, se tomará únicamente, para aplicar el régimen de identificación de las ofertas incursas en presunción de anormalidad, aquella que fuere más baja, y ello con independencia de que presenten su oferta en solitario o conjuntamente con otra empresa o empresas ajenas al grupo y con las cuales concurran en unión temporal.

Cuando la Mesa de Contratación hubiere identificado una o varias ofertas incursas en presunción de anormalidad, deberá requerir a la licitadora o licitadoras que las hubieren presentado dándoles plazo suficiente para que justifiquen y desglosen razonada y detalladamente el bajo nivel de los precios, o de costes, o cualquier otro parámetro en base al cual se haya definido la anormalidad de la oferta, mediante la presentación de aquella información y documentos que resulten pertinentes a

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

errekerimendua jasotzen dutenek.

Kontratazio Mahaiak eskua izango du lizitatzaileei eskatzeko justifika ditzatela eskaintzaren prezio edo kostu baxuak zehazteko balio dezaketen baldintzak, eta, zehazki, honako balio hauek:

a) Zer aurrezpen-aukera ematen duten fabrikazio-prozedurak, emango diren zerbitzuek edo eraikuntza-metodoak.

b) Zer konponbide tekniko hautatuko dituen eta zer baldintza guztiz mesedegarri dituen produktuak hornitzeko, zerbitzuak emateko edo obrak egiteko.

c) Produktuak hornitzeko, zerbitzuak emateko eta obrak egiteko proposatzen dituen konponbideen berrikuntza eta originaltasuna.

d) Ingurumen-, gizarte- eta lan-arloan bete beharreko baldintzak betetzea, ezingo baita justifikatu merkatuen azpitik dagoen preziorik edo SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa urratzen duenik.

e) Edo, besterik gabe, estatu-laguntzarik lortu duen.

Prozeduran, kasuan kasuan dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Kontratazio-organoek, nolanahi ere, atzera botako dute eskaintza bat, ikusten badute baxuegia dela urratzen dituelako azpikontratazioari buruzko arauak edo ez dituelako betetzen ingurumen-, gizarte- nahiz lan-arloan aplikatzekoak diren baldintzak (estatukoak zein nazioartekoak), barnean harturik sektore bakoitzean indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa ez betetzea, hala ezarrita baitago SPLKren 201. artikuluan.

Kontratazio Mahaiak, lizitatzaileak epearen barruan aurkezten duen informazio eta dokumentazio guztia aztertu, eta kasuan-kasuan dagokion onarpen- edo baztertze-proposamena igorriko dio, arrazoiturik, kontratazio-organoari. Inola ere ez da erabakiko eskaintza bat onartzea baldin eta Kontratazio Mahaiaren proposamena ez badago nahikoa arrazoiturik.

Kontratazio-organoak, kontuan hartuta lizitatzailearen justifikazioa eta gorago aipaturiko txostenak, uste badu ordura arte jasotako informazioak ez duela behar bezala azaltzen lizitatzaileak proposaturiko prezioen edo kostuen maila baxua, eta, beraz, eskaintza ezin gauzatuzkoa dela balio anormalak direla-eta, sailkapenetik kanpo utziko du, eta eskaintzarik onenaren aldeko adjudikazioa onartuko du. Oro har, ezetsi egingo dira ustez anormalak diren eskaintzak, baldin eta funtsean hipotesi edo jardunbide ezegokiak badituzte ikuspegi tekniko, ekonomiko eta

estos efectos.

La Mesa de Contratación podrá pedir justificación a estas licitadoras sobre aquellas condiciones de la oferta que sean susceptibles de determinar el bajo nivel del precio o costes de la misma y, en particular, en lo que se refiere a los siguientes valores:

a) El ahorro que permita el procedimiento de fabricación, los servicios prestados o el método de construcción.

b) Las soluciones técnicas adoptadas y las condiciones excepcionalmente favorables de que disponga para suministrar los productos, prestar los servicios o ejecutar las obras,

c) La innovación y originalidad de las soluciones propuestas, para suministrar los productos, prestar los servicios o ejecutar las obras.

d) El respeto de obligaciones que resulten aplicables en materia medioambiental, social o laboral, y de subcontratación, no siendo justificables precios por debajo de mercado o que incumplan lo establecido en el artículo 201 de la LCSP.

e) O la posible obtención de una ayuda de Estado.

En el procedimiento deberá solicitarse el asesoramiento técnico del servicio correspondiente.

En todo caso, los órganos de contratación rechazarán las ofertas si comprueban que son anormalmente bajas porque vulneran la normativa sobre subcontratación o no cumplen las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral, nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenios colectivos sectoriales vigentes, en aplicación de lo establecido en el artículo 201 de la LCSP.

La Mesa de Contratación evaluará toda la información y documentación proporcionada por la licitadora en plazo y elevará de forma motivada la correspondiente propuesta de aceptación o rechazo al órgano de contratación. En ningún caso se acordará la aceptación de una oferta sin que la propuesta de la Mesa de Contratación en este sentido esté debidamente motivada.

Si el órgano de contratación, considerando la justificación efectuada por la licitadora y los informes mencionados, estimase que la información recabada no explica satisfactoriamente el bajo nivel de los precios o costes propuestos por la licitadora y que, por lo tanto, la oferta no puede ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales, la excluirá de la clasificación y acordará la adjudicación a favor de la mejor oferta. En general se rechazarán las ofertas incursas en presunción de anormalidad si están basadas en hipótesis o prácticas inadecuadas desde una perspectiva técnica, económica o

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

juridiko batetik.

8.- KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA, FORMALIZAZIOA ETA FORMALIZAZIOA PUBLIKO EGITEA.

8.1.- Orokorra edo aurretikoa.

Enpresa adjudikazioduna hautatzeko ezarri behar diren irizpideak haztatuta, Kontratazio Mahaiak adjudikazio-proposamena egingo dio kontratazio-organoari.

Adjudikazio-proposamenak ez dio inolako eskubiderik sortuko proposaturiko enpresa lizitatzaileari Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren aurrean. Nolanahi ere, kontratazio-organoak ez badu kontratua proposamenaren arabera esleitzen, arrazoitu egin beharko du erabakia.

8.2.- Adjudikazioa.

8.2.1.- Eskaintzak sailkatzea.

Kontratazio Mahaiak beheranzko hurrenkeran sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak, kanpoan utzirik SPKLn xedatutakoaren arabera baxuegitzat jo direnak. Sailkapen hori baldintza-agiri honetan adierazten diren adjudikazio-irizpideen arabera egingo du, eta, horretarako, egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu. Kontuan hartzeko irizpide bakarra prezioa denean, eskaintza ekonomikorik onena preziorik baxuena duena dela joko da.

8.2.2.- Berdinketak hausteko irizpideak.

Aurretikoa. Adjudikazio-irizpideak aplikatu eta berdinketa baldin badago eskaintza biren edo gehiagoren artean, hurrengo epigrafeetan aipatzen diren irizpide bereziak aplikatuko dira berdinketa hausteko.

Berdinketak hausteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa berdinketa gertatzen den unean aurkeztu beharko dute lizitatzaileek, eta ez aurretik. Baldintzak betetzen ote diren zehazteko unea, edozelan ere, proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da.

8.2.2.1.- Irizpide orokorrak.

Lehenik, begiratuko da ea enpresaren batek baduen, desgaitasuna duten langileei dagokienez, araudiak ezartzen duen pertsonal-portzentajea baino handiagoa (% 2 baino gehiago), eta huraxe hobetsiko da.

Enpresa lizitatzaile batek baino gehiagok egiaztatzen badu (proposamen onuragarrienari dagokionez berdindu dutenetatik) araudiak ezartzen dien % 2 baino gehiago dela enpresarekin lan-harremana duten desgaituen-portzentajea, orduan lehentasuna izango du, kontratuaren

jurídica.

8.- ADJUDICACIÓN, FORMALIZACIÓN Y PUBLICIDAD DE LA FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO.

8.1.- General o Previa.

La Mesa de Contratación formulará propuesta de adjudicación al órgano de contratación una vez ponderados los criterios que deban aplicarse para efectuar la selección de la empresa adjudicataria.

La propuesta de adjudicación no crea derecho alguno en favor de la empresa licitadora propuesta frente a la Fundación Bizkaia Bizkaialde. No obstante, cuando el órgano de contratación no adjudique el contrato de acuerdo con la propuesta formulada deberá motivar su decisión.

8.2.- Adjudicación.

8.2.1.- Clasificación de las ofertas.

La Mesa de Contratación clasificará, por orden decreciente, las proposiciones presentadas y que no hayan sido declaradas anormalmente bajas conforme a lo establecido en la LCSP. Para realizar dicha clasificación, atenderá a los criterios de adjudicación señalados en este pliego, pudiendo solicitar para ello cuantos informes técnicos estime pertinentes. Cuando el único criterio a considerar sea el precio, se entenderá que la mejor oferta es la que incorpora el precio más bajo.

8.2.2.- Criterios de desempates.

Previa. En el caso de que, tras la aplicación de los criterios de adjudicación, se produzca un empate entre dos o más ofertas, se aplicarán los criterios de adjudicación específicos para el desempate referenciados en los epígrafes siguientes.

La documentación acreditativa de los criterios de desempate será aportada por las licitadoras en el momento en que se produzca el empate, y no con carácter previo, si bien el momento decisivo para apreciar la concurrencia de los requisitos será el de finalización del plazo de presentación de las proposiciones.

8.2.2.1.- Criterios Generales.

En primer lugar, será preferida la proposición presentada por aquella empresa que, tenga en su plantilla un porcentaje de personas trabajadoras con discapacidad superior al que les imponga la normativa (2 por 100).

Si varias empresas licitadoras de las que hubieran empatado en cuanto a la proposición más ventajosa acreditan tener relación laboral con personas con discapacidad en un porcentaje superior al que les imponga la normativa (2 por 100), tendrá preferencia en la

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

adjudikazioan, bere langileen artean langile finko desgaituen ehuneko handiena duen enpresa lizitatzaileak.

Bigarrenik, lehentasuna emango zaie Laneratzeko enpresen erregimena arautzen duen 2007ko abenduaren 13ko 44/2007 Legean arautzen diren laneratze-enpresen proposamenei, araudi horretan izaera hori onartzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Hirugarrenik, hobetsiko dira beren langileen artean aldi baterako kontratu-portzentaje txikiena duten enpresen proposamenak.

Laugarrenik, hobetsiko dira beren langileen artean emakume-portzentaje handiena duten enpresen proposamenak.

Bosgarrenik, hobetsiko dira adjudikazio-irizpideen haztapenean pisu gehien duen irizpidean puntu gehien lortu duten enpresen proposamenak, eta, hala ere, berdinketak bere horretan badirau, irizpide bakoitzari eman zaion garrantzi-hurrenkeraren arabera.

Azkenik, goiko irizpide guztiak aplikatu eta berdinketak bere horretan badirau, zozketa bidez ebatziko da lizitazioa.

adjudicación del contrato la empresa licitadora que disponga del mayor porcentaje de personas trabajadoras fijas con discapacidad en su plantilla.

En segundo lugar, serán preferidas las proposiciones presentadas por aquellas empresas de inserción reguladas en la Ley 44/2007, de 13 de diciembre, para la regulación del régimen de las empresas de inserción, que cumplan con los requisitos establecidos en dicha normativa para tener esta consideración.

En tercer lugar, serán preferidas las proposiciones presentadas por aquellas empresas con menor porcentaje de contratos temporales en su plantilla.

En cuarto lugar, serán preferidas las proposiciones presentadas por aquellas empresas con mayor porcentaje de mujeres empleadas en su plantilla.

En quinto lugar, serán preferidas las proposiciones presentadas por aquellas empresas que obtenga una mayor puntuación en el criterio de adjudicación que tenga mayor peso en la ponderación de los mismos, y en el caso de que continuara la igualdad, por el orden de importancia que se le haya atribuido a cada criterio.

Finalmente, si aplicados los anteriores criterios, persistiera el empate, se resolvería por sorteo.

8.2.2.2.- Izaera soziala duten prestazioetarako irizpideak

Izaera soziala edo laguntzazkoa duten prestazioak egiteko kontratuetan, hobetsiko dira, lehenik, irabazi-asmorik gabeko erakundeek, nortasun juridikoa dutela, aurkeztutako proposamenak, baldin eta, beren helburuak edo jardunak kontratuaren xedearekin zerikusi zuzena badu, bakoitzaren estatutuetan edo sorrerako araudian jaso eta dagokion erregistro ofizialean erregistratutakoaren arabera.

Bigarren, aurreko atalean ezarri diren berdinketak hausteko irizpideak aplikatuko dira.

8.2.2.2.- Criterios en prestaciones de carácter social

En los contratos relativos a prestaciones de carácter social o asistencial serán preferidas, en primer lugar, las proposiciones presentadas por entidades sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica, siempre que su finalidad o actividad tenga relación directa con el objeto del contrato, según resulte de sus respectivos estatutos o reglas fundacionales y figuren inscritas en el correspondiente registro oficial.

En segundo lugar, se aplicarán los criterios de desempate establecidos en el epígrafe anterior.

8.2.2.3.- Bidezko merkataritzako produktuetarako irizpideak

Kontratu baten xede diren produktuetan bidezko merkataritzako produktuetara jotzeko aukera baldin bada, hobetsiko dira, lehenik, bidezko merkataritzako erakunde gisa aitorturik dauden entitateek aurkeztutako proposamenak.

Bigarren, 8.2.2.1 atalean ezarri diren berdinketak hausteko irizpideak aplikatuko dira.

8.2.2.3.- Criterios en productos de comercio justo

En los contratos que tengan como objeto productos en los que exista alternativa de comercio justo serán preferidas, en primer lugar, las proposiciones presentadas por aquellas entidades reconocidas como Organizaciones de Comercio Justo.

En segundo lugar, se aplicarán los criterios de desempate establecidos en el epígrafe 8.2.2.1.

8.2.2.4.- Berdinketak hausteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa.

Honako dokumentazio hau erabil daiteke berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko:

8.2.2.4.- Documentación acreditativa de los criterios de desempate.

La documentación para la acreditación de los criterios de desempate podrá ser:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

a) Enpresa batean **desgaitasuna duen langileen portzentajea, aldi baterako kontratuen portzentajerik txikiena eta emakumezko enplegatu gehien duenaren portzentajea**, denak egiaztatu behar dira beren-beregi emaniko egiaztagirien bidez edo kasuan kasuko inguruabarrari dagokion dokumentazioaren bidez.

b) **Laneratze-enpresak-**Laneratze-enpresen kasuan, beren beregi emaniko egiaztagirien bidez edo dagokion dokumentazioaren bidez egiaztatu behar da halako enpresak direla.

c) **Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.-** Berezko nortasun juridikoa duten irabazi-asmorik gabeko erakundeen kasuan, erakundeon helburuak edo jarduerak zuzeneko lotura badu kontratuaren xedearekin —izaera soziala edo laguntzazkoa duten prestazioak—, izaera hori dutela egiaztatzeko, beharrezkoa izango da kasuan kasuko erregistro ofizialean jasota dauden estatutuak edo sortze-araudia aurkeztea.

d) **Bidezko merkataritza.-** Bidezko merkataritzako erakunde gisa aitorturiko entitateen kasuan, halako produktuak baliatzeko aukera dagoenean eta produktuok badira kontratuaren xedea, izaera horretako erakunde direla aitortzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko da.

8.2.3.- Kontratua adjudikatu gabe uztea.-

Ezingo da utzi adjudikatu gabe lizitazio bat, baldin eta baldintza-agiri honetan ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

8.2.4.- Eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa.-

Dokumentazioa aurkezteko, **hamar egun balioduneko epea** dago, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Hona aurkeztu beharrekoak:

8.2.4.1 Kontratatzeko betekizunei buruzko frogagiriak:

Enpresen gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko baldintzak, denak batera bete beharko dira eskaintzak aurkezteko azken egunean, eta beren horretan jarraitu behar dute kontratua burutzeko unean.

1.- Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko agiriak, jarraian adierazten diren kasuen arabera:

a) Pertsona fisikoa: proposamena egiten duen pertsonaren NANa edo haren ordezko dokumentu fede-emailea.

b) Pertsona juridikoa: eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuak edo eraketa-egintza. Agiri horietan

a) El porcentaje de personas trabajadoras con **discapacidad, el menor porcentaje de contratos temporales y el mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de una empresa**, se deberá acreditar mediante certificación expedida al efecto o documentación pertinente de la circunstancia correspondiente.

b) **Empresa de inserción-** En el caso de las empresas de inserción, se deberá acreditar dicha condición mediante certificación expedida al efecto o documentación pertinente.

c) **Entidades sin ánimo de lucro.-** En el caso de las entidades sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica propia, siempre que su finalidad o actividad tenga relación directa con el objeto del contrato y que este último esté integrado por prestaciones de carácter social o asistencial, se deberá acreditar dicha circunstancia a través de los estatutos o reglas fundacionales inscritas en el correspondiente Registro oficial.

d) **Comercio justo.-** En el caso de las entidades reconocidas como Organizaciones de Comercio Justo, en los contratos que tengan como objeto productos en los que exista tal alternativa, se deberá acreditar dicha condición a través de justificante que le reconozca tal carácter.

8.2.3.- Declaración de desierta.

No podrá declararse desierta una licitación cuando exista alguna oferta o proposición que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuren en este pliego.

8.2.4.- Documentación a requerir y presentar por la empresa licitadora que haya presentado la mejor oferta.

La documentación, que ha de presentarse en el plazo de **diez días hábiles** a contar desde el siguiente a aquél en que reciba el requerimiento, es la siguiente:

8.2.4.1. Documentación justificativa de los requisitos para contratar:

Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato.

1.- Documentación acreditativa de la capacidad de obrar según los supuestos que a continuación se detallan:

a) Persona física: D.N.I. o documento fehaciente que haga sus veces de la persona que realice la proposición.

b) Persona jurídica: escritura o documento de constitución, los estatutos o el acto fundacional,

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

jasota geratu behar da pertsona juridiko horren jarduna zein arauren arabera erregulatuko den, eta agiri horiek guztiak behar bezala erregistratu behar dira pertsona juridiko bakoitzari dagokion erregistro publikoan.

en los que consten las normas por las que se regula su actividad, debidamente inscritos, en su caso, en el Registro público que corresponda, según el tipo de persona jurídica de que se trate.

c) Aldi baterako enpresa-elkarteak: kide bakoitzak gaitasuna, izaera, ordezkaritza eta kaudimena egiaztatuko ditu.

c) Uniones temporales de empresas: cada una de las componentes acreditará su capacidad, personalidad, representación y solvencia.

d) Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako enpresak: enpresak errotuta dauden estatuaren legediaren arabera dagokien erregistroan izena emanda daudela egiaztatzen duen agiria (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren I. eranskina), zinpeko deklarazioa edo ziurtagiria aurkez dezakete, aplikatzekoak diren Batasuneko xedapenen arabera. Halaber, enpresak kokatuta dauden estatuko legediak eskatzen baldin badu enpresa horiek dagokien zerbitzua emateko baimen berezia behar dutela edo erakunde jakin bateko kide izan behar dutela, orduan, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu behar dute.

d) Empresas no españolas de Estados miembros de la Unión Europea: inscripción de las empresas en el registro procedente de acuerdo con la legislación del Estado donde están esté establecidas (Anexo 1 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas), o mediante la presentación de una declaración jurada o un certificado de acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación. Asimismo, cuando la legislación del Estado en que se encuentren establecidas estas empresas exija una autorización especial o la pertenencia a una determinada organización para poder prestar en él el servicio de que se trate, deberán acreditar que cumplen este requisito.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioarekiko kobrantza-eskubidea daukaten kontratistek laga egin dezakete eskubide hori, zuzenbidearen arabera. Kobrantza-eskubidea lagatzea Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren aurrean eraginkorra izango bada, ezinbesteko baldintza da administrazioari kobrantza-eskubidea lagatzeko erabakia frogatzeko moduan jakinaraztea.

Las contratistas que tengan derecho de cobro frente a la Fundación Bizkaia Bizkaialde.podrán ceder el mismo conforme a derecho. Para que la cesión del derecho de cobro sea efectiva frente a la Fundación Bizkaia Bizkaialde. será requisito imprescindible la notificación fehaciente a la misma del acuerdo de cesión.

Prezioa ordaintzeak prezio hori kobratzeko eskubidea sortzen dio kontratistari, eta hura ordaintzeko betebeharra, berriz, Bizkaia Bizkaialde Fundazioari. Horiek horrela:

El pago del precio supone un derecho de la contratista a su abono y una obligación a abonarlo por parte de la Fundación Bizkaia Bizkaialde. Así pues:

a) SPKLren 198. artikuluan eta kontratuan ezarritako baldintzetan egindako prestazioaren ordainketa jasotzeko eskubidea izango du kontratistak, itundutako prezioaren arabera nolanahi ere.

a) La contratista tendrá derecho al abono de la prestación realizada en los términos establecidos en el artículo 198 de la LCSP y en el contrato, con arreglo al precio convenido.

Kontratistak, halaber, eskubidea izango du kontratua gauzatzeko prestakuntza-eragiketen zenbatekoaren adinako konturako ordainketak jasotzeko, eragiketok kontratuaren xedearen barnean badaude, betiere baldintza-agiri honen karatulako "U" atalean adierazitako

La contratista tendrá también derecho a percibir abonos a cuenta por el importe de las operaciones preparatorias de la ejecución del mismo y que estén comprendidas en el objeto del mismo, en las condiciones señaladas, en su caso, en el apartado "U" (OTRAS ESPECIFICACIONES) de la

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

eran (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK). Halako ordainketak bermea jarrita ziurtatu behar dira.

b) Bizkaia Bizkaialde Fundazioak prezioa ordaindu behar du, SPKLren 198. artikuluan eta harekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera. Artikulu horietan, halaber, ordainketaren berandutzeari buruzko araubide juridikoa xedatzen da.

9.6.3.- Ordaintzeko era.

Prezioa osorik edo zatika ordain daiteke, konturako ordainketak eginez, edo, segidako traktudun kontratuetan, hitzarturiko mugaegun bakoitzean ordainketa eginez, baldintza-agiri honen karatulako "U" atalean jasotakoaren arabera (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK).

Urte baterako nahiz zenbait urtetarako zerbitzu-prestazioen kasuan, ordainketa hilero egin ahal izango da (urteko bakoitzerako aurreikusitako prezioaren hamabirena hilabete bakoitzean), edo, aholkularitza nahiz laguntza teknikoa bada, kontrataturiko prestazioaren fase bakoitza gauzatu ahala.

Prestaketa-jarduketak egitea beharrezkoa bada, enpresa adjudikaziodunak eskubidea izango du haiengatik ordain dakion, kontratuaren zenbatekoaren % 20 arte gehienez ere, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 201. 2 artikuluan ezartzen diren baldintzen arabera. Aurrerakin hori ordaindu ahal izateko, kontratuak nahitaez egon beharko du formalizaturik.

Kontratuaren arduradunak oniritzia emanez egiaztatuko da eginiko lanen zenbatekoa, karatula honen "U" atalean ezartzen den aldizkakotasunez (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK).

Ziurtagiri hori eman delarik, kontratistak bere faktura igorri ahal izango du, eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioak hogeita hamar (30) egun natural izango ditu faktura jasotzen duenetik hura ordaintzeko, salbu eta fakturak hutsuneak edo akatsak baditu; halakoetan, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak kontratistari jakinarazi behar dio faktura jaso eta lehen hogei (20) egunen epea, kontratistak zuzenketak egin ditzan.

9.6.4.- Urtekoak.

Zeinahi dela ere gauzatutako kontratuaren zenbatekoa, kontratistak ez du izango eskubiderik urte bakoitzean izendaturiko urtekoaren zenbatekoa baino gehiago jasotzeko. Hala ere, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak doitu egin ditzake onartutako urtekoak, urtekook kontratuaren gauzatze-erritmoari egokitzearren.

9.6.5.- Prezioak berrikustea.

carátula de este pliego, debiéndose asegurar los referidos pagos mediante la prestación de garantía.

b) La Fundación Bizkaia Bizkaialde. tendrá obligación de abonar el precio atendiendo a lo establecido en el artículo 198 y concordantes de la LCSP. Dicho articulado establece, asimismo, el régimen jurídico de la demora en el pago.

9.6.3.- Forma de pago.

Podrá hacerse de manera total o parcial, mediante abonos a cuenta o, en el caso de contratos de tracto sucesivo, mediante pago en cada uno de los vencimientos que se hubiesen estipulado, según lo recogido en el apartado "U" (OTRAS ESPECIFICACIONES) de la carátula de este pliego.

El pago podrá tener una periodicidad mensual, por doceavas partes del precio previsto para cada anualidad, en el caso de prestación de servicios con carácter anual o plurianual o en atención a la ejecución de las distintas fases de entrega de las prestaciones contratadas, en el caso de que se trate de una consultoría o asistencia técnica.

La empresa adjudicataria tendrá derecho al abono por operaciones preparatorias, si fueran precisas, hasta un máximo de un 20% del importe del contrato, conforme a los requisitos previstos en el artículo 201.2 RGLCAP. Para proceder al abono de este anticipo será requisito imprescindible que se haya formalizado el contrato.

El importe de los trabajos realizados se acreditará mediante el visto bueno del responsable del contrato, con la periodicidad establecida en el apartado "U" (OTRAS ESPECIFICACIONES) de la Carátula.

Emitida dicha certificación, el contratista podrá emitir su factura y la Fundación Bizkaia Bizkaialde dispondrá de un pazo de treinta (30) días naturales para su abono desde la fecha de recepción, salvo que existan defectos o errores en la factura, en cuyo caso la Fundación Bizkaia Bizkaialde deberá comunicarlo al contratista dentro de los primeros veinte (20) días de su recepción, para que proceda a su subsanación.

9.6.4.- Anualidades.

Cualquiera que sea el importe del contrato ejecutado, la persona contratista no tendrá derecho a percibir en cada año una cantidad mayor que la que consignada en la anualidad correspondiente. Sin embargo, la Fundación Bizkaia Bizkaialde tiene la facultad de reajustar las anualidades aprobadas, para adecuarlas al ritmo de la ejecución del contrato.

9.6.5.- Revisión de precios.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

Prezioak honela berrikusiko dira: baldintza-agiri honen karatulako "L" atalean ezartzen denaren arabera (PREZIOEN BERRIKUSPENA); kontratu-agirian ezarritakoaren arabera, bestela; edo SPKLren 103. artikuluan eta arau konkordanteetan ezarritakoaren arabera.

La revisión de precios se realizará, en su caso, según lo establecido en el apartado "L" (REVISIÓN DE PRECIOS) de la carátula de este pliego, en el documento contractual, en su caso, y en el artículo 103 de la LCSP y normativa concordante.

9.7.- Kontratua aldatzea.

Interes publikoaren arrazoiak direla-eta bakarrik alda daiteke kontratazio-organoa, SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

Indarrean dagoen bitartean, honako egoera hauetakoren batean bakarrik alda daiteke kontratua:

a) Administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan aurreikusirik badago, hasierako prezioaren ehuneko hogei arte alda daiteke, 204. artikuluan ezartzen den eran, han zehazturiko edukiarekin eta han ezarritako modu eta baldintza beretan.

b) Salbuespen gisa, beharrezkoa denean administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan aurreikusirik ez dagoen aldaketa bat egitea, baina baldin eta 205. artikuluak ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira kontratu-aldaketak, eta SPKLren 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoarekin bat publikatu.

Prezioa zehazteko exekuzio-unitateak baliatzen direnean, ez da kontratu-aldaketatzat joko, prestazioa egoki egiten bada, diferentzia egotea benetan gauzaturiko unitate-kopuruaren eta kontratuan aurreikusitako kopuruaren artean. Diferentzia hori likidazioan jaso ahal izango da, baldin eta unitateok ez badakarte berekin gastua kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino gehiago handitzea.

9.7.- Modificación del contrato.

El órgano de contratación solo podrá ser modificado por razones de interés público en los casos y en la forma prevista en el artículo 203 y siguientes de la LCSP.

El contrato solo podrá modificarse durante su vigencia cuando se dé alguno de los siguientes supuestos:

a) Cuando así se haya previsto en la carátula de este pliego de cláusulas administrativas particulares, podrá modificarse hasta un máximo del veinte por ciento del precio inicial, en la forma, con el contenido y en los términos y condiciones establecidos en el artículo 204.

b) Excepcionalmente, cuando sea necesario realizar una modificación que no esté prevista en la carátula de este pliego de cláusulas administrativas particulares, siempre y cuando se cumplan las condiciones que establece el artículo 205.

Las modificaciones del contrato deberán formalizarse conforme a lo dispuesto en el artículo 153 de la LCSP, y deberán publicarse de acuerdo con lo establecido en los artículos 207 y 63 de la LCSP.

En los casos en que la determinación del precio se realice mediante unidades de ejecución, no tendrán la consideración de modificaciones la variación que durante la correcta ejecución de la prestación se produzca exclusivamente en el número de unidades realmente ejecutadas sobre las previstas en el contrato, las cuales podrán ser recogidas en la liquidación siempre que no representen un incremento del gasto superior al 10 por ciento del precio del contrato.

9.8.- Kontratua etetea.

Baldin eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioak kontratua etetea erabakitzen badu, edo SPKLren 208. artikuluan ezartzen dena aplikatzeagatik eteten bada, akta bat egin behar da, ofizioz nahiz kontratistaren eskariz, egoera hori sorrarazi duten inguruabarrak jasotzeko, eta kontratuaren gauzatzea zein egoeratan geratu den agertzeko.

Behin etetea erabakirik, benetan jasan dituen kalte eta galeren ordaina pagatuko dio Bizkaia Bizkaialde Fundazioak kontratistari, SPKLren 208.2. artikuluan ezartzen diren arauen arabera.

9.8.- Suspensión del contrato.

Si la Fundación Bizkaia Bizkaialde acordase la suspensión del contrato o aquélla tuviere lugar por la aplicación de lo dispuesto en el artículo 208 de la LCSP, se levantará un acta, de oficio o a solicitud de la persona contratista, en la que se consignarán las circunstancias que la han motivado y la situación de hecho en la ejecución de aquél.

Acordada la suspensión, la Fundación Bizkaia Bizkaialde abonará al contratista los daños y perjuicios efectivamente sufridos por este con sujeción a las reglas establecidas en el artículo 208.2 LCSP.

9.9.- Kontratistaren betebeharrak.

9.9.1.- Lan-, gizarte- eta ingurumen-arloko betebeharrak.

9.9.- Obligaciones de la contratista.

9.9.1.- Obligaciones laborales, sociales y medioambientales.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

Kontratuak bete egin behar ditu lan arloan, gizarte segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikatzekoak diren lege, arau eta konbentziozko xedapenak.

Kontratistak, adjudikatu zaion lana betetzeko erabiliko dituen langileak direla eta, zehatz-mehatz bete behar ditu lan arloan indarrean dagoen araudia, Gizarte Segurantzakoa, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzekoa eta lan-arriskuen prebentziokoa, eta, azken bi horiei dagokienez, gizarte-prestakuntzako araudia ere bete behar du. Halaber, kontratistak beste konpromiso bat hartu behar du: enpresa azpikontratistek —halakorik egonez gero—, haien langileak direla-eta, lan arloan indarrean dagoen legedia beteko dutela. Kontratistak derrigorrean zaindu behar du bere enpresako zein azpikontratatzen dituen enpresetako —halakorik egonez gero— langileek baldintza duinetan egiten dutela lan; haien sektoreko hitzarmena aplikatuko zaie langile horiei, batez ere langileen subrogazioari dagokionez.

9.9.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezitzat joko dira honako hauek:

1.- Araudia betetzea.- Kontratua gauzatzen ari denean, kontratistak Europar Batasuneko zuzenbidean, estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotesten duten gizarte-, ingurumen- eta lan-arloko nazioarteko zuzenbidearen xedapenetan ezarritako gizarte-, lan- eta ingurumen-arloko eginbideak bete beharko ditu. Halaber, erantzukizunpeko adierazpena egingo du eskaintza egiterakoan araudi hori aplikatu duela egiaztatzeko, 2. ERANSKINEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA erabilita.

2.- Oinarrizko lan-eskubideak errespetatzeko eginbidea eta LANE Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko konbentzioak betetzekoa.- Kontratistak bere egiten du produkzio-kate osoan oinarrizko lan-eskubideak errespetatzeko eginbidea, eta, halaber, LANEren funtsezko hitzarmenak betetzekoa; bereziki, behean zerrendatzen direnak, kontuan izanik horretarako 2. ERANSKINean jasotzen den ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA:

- 29. eta 105. Konbentzioak, bortxazko lanak desagerrarazteari buruzkoak.
- 87. eta 98. Konbentzioak, askatasun sindikalari, elkartzeko askatasunari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.
- 100. Konbentzioa, balio berdineko lanetan gizonen eskulana eta emakumeen eskulana berdin

El contrato se halla sujeto al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo.

La contratista respecto al personal que emplee en la realización del trabajo adjudicado, está obligada al exacto cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral, de Seguridad Social, de integración social de personas discapacitadas y de prevención de riesgos laborales y, en relación a estas últimas, de formación social, comprometiéndose a que por parte de las empresas subcontratistas -en su caso- se cumpla la legislación vigente en materia laboral con respecto a sus personas trabajadoras. La contratista estará obligada a que el trabajo, tanto en su empresa como con las empresas que subcontrate -en su caso- se desempeñe en condiciones dignas, siéndoles de aplicación a las personas trabajadoras el convenio del sector del que forman parte, especialmente en cuanto a la subrogación del personal se refiere.

9.9.2.- Condiciones especiales de ejecución.

Se consideran condiciones especiales de ejecución:

1.- Cumplimiento de la normativa. - La contratista, en ejecución del contrato, cumplirá las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral establecidas en el Derecho de la Unión Europea, el Derecho nacional, los convenios colectivos o por las disposiciones de Derecho internacional medioambiental, social y laboral que vinculen al Estado. Asimismo, realizará la pertinente declaración responsable de aplicación de dicha normativa a la hora de elaborar la oferta, según el tenor al respecto referido en el ANEXO 2, de DECLARACIÓN RESPONSABLE.

2.- Obligación de respetar los derechos laborales básicos y cumplimiento de las convenciones fundamentales de la Organización Internacional del Trabajo (OIT).- La contratista asume la obligación de respetar los derechos laborales básicos a lo largo de toda la cadena de producción y el cumplimiento de las convenciones fundamentales de la OIT, y en especial las siguientes, según el tenor al respecto referido en el ANEXO 2, de DECLARACIÓN RESPONSABLE

- Las Convenciones 29 y 105, relativas a la supresión del trabajo forzado.
- Las Convenciones 87 y 98, relativas a la libertad sindical, de asociación y negociación colectiva.
- La Convención 100, relativa a la igualdad de remuneración entre la mano de obra masculina y la

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

ordaintzeari buruzkoa.

- 111. Konbentzioa, lana emateko eta lan-baldintzak ezartzeko orduan diskriminatzearen aurkakoa (arraza, kolorea, sexua, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazionala edo jatorri soziala direla-eta).
- 138. Konbentzioa, esplotazioa eta umeen lana ezabatzeari buruzkoa.
- 182. Konbentzioa, haurren lan txarrenak debekatzeari eta berehala ezabatzeko ekintzari buruzkoa.

Eginbide hau funtsezkoa da, eta, beraz, SPKLren 211. f artikuluan xedatzen denarekin bat, berau ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia da.

3.- Desgaitasuna duten pertsonak enplegatzeko legezko eginbidea. Adjudikaziodun izanez gero, kontratuak dirauen bitartean, kontratistak betebehar hauek izango ditu: pertsonalaren 100eko 2 gutxienez desgaitasuna duten pertsonak izatea, enpresak 50 langile edo gehiago baditu, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu hori), edo apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan ezarritako ordezko neurriak ezartzea. Gainera, konpromisoa hartzen du kontratuaren arduradunaren aurrean egiaztatzeko aipatutako betebeharrak betetzen direla. Arduradunak eskatzen duenean egingo da hori, kontratuaren indarraldian edozein unetan, edo, edonola ere, azken faktura bidali baino lehen (2. ERANSKINA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

4.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko legezko eginbidea.- Kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eginbidea du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera. Gainera, berdintasun plan bat duela egiaztatzeko konpromisoa hartzen du, bai legezko betebeharra duenean (100 langile baino gehiago), bai plan bat izateko betebehar konbentzionala duenean. Kontratuaren arduradunak eskatzen duenean egingo da hori, kontratuaren indarraldiaren edozein unetan, edo, edonola ere, azken faktura bidali baino lehen (2. ERANSKINA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

Enpresa adjudikaziodunak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatu behar du: tratuan, lana eskuratzeko aukeretan, langileen sailkapenean, barne igoeran, lanean irautean, prestakuntzan, kontratua azkentzeko baldintzetan, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta

mano de obra femenina por un trabajo de igual valor.

- La Convención 111, contra la discriminación en el acceso a empleo y las condiciones laborales por razones de raza, color, sexo, religión, opinión pública, extracción nacional u origen social.
- La Convención 138, relativa a la abolición de la explotación y el trabajo infantil.
- La Convención 182, relativa a la prohibición de las peores formas de trabajo infantil y de la acción inmediata para su eliminación.

Esta obligación es de carácter esencial y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 211.f LCSP su incumplimiento es causa de resolución del contrato.

3.- Obligación legal de emplear personas con discapacidad.- La contratista, durante la vigencia del contrato, asume la obligación de tener empleadas personas trabajadoras con discapacidad en un 2 por 100, al menos, de la plantilla de la empresa, si ésta alcanzara un número de 50 o más personas trabajadoras, de conformidad con el artículo 42 del el texto refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, o la de adoptar las medidas alternativas establecidas en el Real Decreto 364/2005 de 8 de abril. Asimismo, se compromete a acreditar el cumplimiento de la referida obligación ante la persona responsable del contrato, cuando ésta se lo requiera, en cualquier momento durante la vigencia del contrato o, en todo caso, antes de la remisión de la última factura (ANEXO 2, DECLARACIÓN RESPONSABLE).

4.- Obligación legal de promover la igualdad de mujeres y hombres.- La contratista, durante la vigencia del contrato, asume la obligación de promover la igualdad de mujeres y hombres, conforme a lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres del País Vasco. Asimismo, se compromete a acreditar la disposición de un Plan de Igualdad, si tuviere la obligación legal (más de 100 trabajadores/as) o convencional de tenerlo, lo cual acreditará ante la persona responsable del contrato, cuando ésta se lo requiera, en cualquier momento durante la vigencia del contrato o, en todo caso, antes de la remisión de la última factura (ANEXO 2, de DECLARACIÓN RESPONSABLE).

En la ejecución del contrato, la empresa contratista o subcontratista garantizará la igualdad entre mujeres y hombres en el trato, en el acceso al empleo, clasificación profesional, promoción, permanencia, formación, extinción, retribuciones, calidad y estabilidad laboral,

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

egonkortasunean, eta lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan.

duración y ordenación de la jornada laboral.

5.- Estereotipo sexistak saihesteko eginbidea.- Kontratua gauzatzearen ondorioz sortzen diren dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, enpresa edo entitate adjudikaziodunak eta azpikontratistak, halakorik badago, hizkuntza ez-sexista erabili beharko dute, emakumeen irudi diskriminatzaileak eta estereotipo sexistak saihestuko dituzte, eta balio hauek dituen irudi bat sustatuko dute: berdintasuna, emakume eta gizonen presentzia orekatua, aniztasuna,erantzunkidetasuna eta rolen eta genero-identitate pluraltasuna.

5.- Obligación de evitar estereotipos sexistas.- En toda la documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, la empresa o entidad adjudicataria, así como la subcontratista en su caso, deberá emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

Kontratazio-organoak izendatutako kontratuaren arduradunak dokumentazio hori aztertu beharko du, erabili eta zabaldu baino lehen.

Toda la documentación referida deberá ser examinada por el responsable del contrato designado por el órgano de contratación, previo a su uso y difusión.

6.- Kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa. Adjudikaziodun gertatuz gero, lizitatzaileek zehaztuko dute kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa. Horrez gainera, kontratua adjudikatzerakoan kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileek izango dituzten lan-baldintzei buruz jakin nahi den informazio guztia emateko betebeharra dute (2. ERANSKINA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

6.- Convenio colectivo de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato. Las licitadoras indicarán el convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en el caso de resultar adjudicatarias. Asimismo, tendrán la obligación de facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato (ANEXO 2, de DECLARACIÓN RESPONSABLE).

Adjudikaziodunak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa dela deklaratzen duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa adjudikazio-ebazpenean jasoko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko. Ildo horretan, eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzaileek borondatez onartzen dutela lizitazio-, adjudikazio- eta betearazpen-prozesuen ondoriozko datu guztiei gardentasun instituzionala ematea.

La información sobre el convenio colectivo que la empresa adjudicataria declare aplicable a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato se incluirá en la resolución de adjudicación y se publicará en el perfil de contratante. En este sentido, la presentación de la oferta presupone para las licitadoras la aceptación voluntaria de dar transparencia institucional a todos los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución hasta su finalización.

7.- Hitzarmenean jasotako soldata ordaintzeko eginbidea.- Kontratistak sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan (2. ERANSKINA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

7.- Obligación de pago del salario recogido en el convenio. - La contratista deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo sectorial según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel (ANEXO 2, de DECLARACIÓN RESPONSABLE)

8.- Subrogatzeko eginbidea.- Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo efikazia orokorra duen negoziazio kolektiboko erabaki batek nahitaez behartzen badu adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatzera zenbait lan-harremanetan, ondoren jasotzen diren klausulei jarraitu beharko zaie, SPKLren 130. artikuluan ezartzen dena betetzeko:

8.- Obligación de subrogación. - Cuando una norma legal, un convenio colectivo o un acuerdo de negociación colectiva de eficacia general imponga a la adjudicataria la obligación de subrogarse como empleadora en determinadas relaciones laborales, regirán las siguientes cláusulas en cumplimiento de lo previsto en el artículo 130 LCSP:

a) Ohartarazten da kontratazioak berekin dakarrela

a) Se advierte de que la contratación se encuentra

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

langile guztien lan-kontratuen subrogazioa –hala badagokio, betebeharra ezartzen duen arauan jasotako gutxieneko antzinatasunarekin–, langile horiek beste kontrata batekoak izan arren kontratuaren xede den jarduera egiten ari baldin badira; horren ondorioz, enpresaburu berriari subrogatu egingo zaizkio aurrekoak zituen laneko eta Gizarte Segurantzako eskubideak eta betebeharrak.

sometida a la subrogación de los contratos de trabajo de todos los trabajadores y trabajadoras –en su caso con la antigüedad mínima que se contemple en la norma de la que surge la obligación– que, a pesar de pertenecer a otra contrata, vengan realizando la actividad objeto del contrato, quedando la nueva empresaria subrogada en los derechos y obligaciones laborales y de Seguridad Social.

b) Adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatzeko neurriaren lan-kostuak kalkulatu ahal izateko, kontratu honen subrogazioak eragindako langileen kontratuen baldintzak direla-eta behar den informazioa dagokion eranskinean adierazitakoa da.

b) A fin de permitir una evaluación de los costes laborales que implicará la medida de subrogación de la adjudicataria como empleadora, la información que resulta necesaria sobre las condiciones de los contratos de las trabajadoras y trabajadores a los que afecta la subrogación de este contrato es el señalado en el anexo correspondiente.

Adjudikatuko den kontratuaren xede den prestazioa ematen ari den eta ukitutako langileen enplegatzaile den enpresak emandako informazioarekin osatu da aipatutako informazioa.

Esta información ha sido elaborada con la información proporcionada por la empresa que viene efectuando la prestación objeto del contrato a adjudicar y que tiene la condición de empleadora de las trabajadoras y trabajadores afectados.

c) Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren zati bat hirugarrenekin kontratatzen badu, kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren aurrean, administrazio-klausula partikularren agirietan jasotakoari eta kontratuan ezarritakoari zorrozki lotuz, barnean harturik gizarte- eta lan-arloetako eginbideak betetzea.

c) En caso de que la empresa adjudicataria contrate con terceros la realización parcial del contrato, la contratista principal asumirá la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente a la Fundación Bizkaia Bizkaialde con arreglo estricto a los pliegos de cláusulas administrativas particulares y a los términos del contrato, incluido el cumplimiento de las obligaciones en materia social o laboral.

Subrogatu beharra dagoen kasuetan, adjudikaziodunak zerbitzuak ematen arituko diren pertsonen zerrenda aurkeztuko du zerbitzuak ematen hasi baino lehen, bere eskaintzan jasotako lanpostuen zerrenda kontuan hartuta, kontratuaren arduradunak aukera izan dezan plangintzaren barruko lanak betetzen ari diren pertsonak edozein unetan identifikatzeko. Halaber, enpresa kontratistak ezin izango ditu ordezkatu bere eskaintzan ezarritako langileak, eta ezin izango du kontratu berririk egin Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren berariazko baimenik gabe.

En los casos en los que exista la obligación de subrogación, la adjudicataria presentará, previamente al inicio de la prestación de los servicios, una relación nominal de las personas destinadas a los mismos, de acuerdo a la relación de puestos de trabajo recogida en su oferta, de manera que el responsable del contrato pueda identificar, en cualquier momento, a las personas que ejecutan los trabajos planificados. Asimismo, la empresa contratista no podrá sustituir al personal establecido en su oferta, ni realizar nuevas contrataciones, sin la expresa autorización de la Fundación Bizkaia Bizkaialde.

d) Eragotzi gabe, hala dagokionean, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezartzen dena (2015eko urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaz onartua), kontratista beharturik egongo da subrogazioak ukituriko langileei ordaindu gabe geraturiko soldatengatik erantzutera, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazioengatik ere, baita kontratua suntsiarazten bada eta langileak kontratista berriak subrogatzen baditu ere. Edozelan ere, betebehar hori ez zaio inoiz kontratista berriari egokituko. Halakoetan, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak, behin egiaztaturik soldatok ez direla ordaindu, atxiki egingo ditu kontratistari zor zaizkion zenbatekoak, soldatak ordaintzen direla bermatzeko, eta ez du behin betiko

d) Sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de lo establecido en el artículo 44 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, la contratista está obligada a responder de los salarios impagados a las personas trabajadoras afectadas por subrogación, así como de las cotizaciones a la Seguridad Social devengadas, aun en el supuesto de que se resuelva el contrato y aquellas sean subrogadas por el nuevo contratista, sin que en ningún caso dicha obligación corresponda a este último. En este caso, la Fundación Bizkaia Bizkaialde, una vez acreditada la falta de pago de los citados salarios, procederá a la retención de las cantidades debidas a la contratista para garantizar el pago

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

bermea itzuliko harik eta egiaztatu arte ordaindu direla.

9.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak, hizkuntza arloan.- Bizkaia Bizkaialde Fundazioak sinatzen dituen kontratuak hizkuntza ofizial bien araubidearen mendean daude, honako arauetan ezartzen denarekin bat: Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan, Euskararen Erabilpena Arautzeko Eusko Legebiltzarraren azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta arlo horretan indarrean dauden erkidegoko araudia eta foru-araudia.

10.- Enplegua eta plantilla mantentzeko eginbidea.

SPKLren 76.2 eta 3 eta 202. artikuluen arabera, enpresa lizitatzaileak konpromiso hau hartuko du adjudikaziodun suertatzen bada: baldintza teknikoen agirian horretarako ezarritako gutxieneko langileak mantentzea, kontratuaren gauzatze guztian zehar. Horretarako, 2. ERANSKINean jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez adierazi beharko dute lizitatzaileek kontratua gauzatzeko enplegatuko dituzten langileen kopurua eta izango duten lanaldia (urtean beteko dituzten lanorduetan adierazita). Plantilla ez bada homogeneoa izango kontratua gauzatzen den bitartean, egutegi bat aurkeztu beharko da, zehatz adierazita pertsona-kopurua, eta indibidualizatuta jasoko da bakoitzaren urteko lanaldia, pertsona bakoitzak beteko dituen lanorduetan adierazita. Horrez gainera, kontratuaren hasiera-data eta amaiera-data adierazi beharko dira.

9.9.2.1.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzearen jarraipena.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioa.- Kontratuaren arduradunak kontratua gauzatzeko baldintza berezi horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egingo du, eta dokumentazio hori edo beste bat eskatu ahal izango dio kontratistari, kontratuaren betetze-maila kontrolatzeko eta ebaluatzeko dagozkion ahalmenak betetzeko. Halaber, jarraipen bilerak egiteko eta aldizkako ebaluazio txostenak aurkezteko eskatu ahal izango dio. Kontratuan ezarritako betebeharrak betetzen ez direnean, kontratuaren arduradunak egoera horren berri emango dio kontratazio-organoari, eta, beharrezkoa bada, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

Kontratista.- Kontratistak bere gain hartzen du kontratuaren arduradunaren eskura izateko betebeharra eta hari eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia ematekoa, hala egiaztatu ahal izateko betetzen direla hala baldintza-agiri honetan jasotzen diren gauzatze-baldintza bereziak nola 2. ERANSKINeko erantzukizunpeko adierazpenean harturiko

de los citados salarios, y a la no devolución de la garantía definitiva en tanto no se acredite el abono de estos.

9.- Condiciones especiales de ejecución en materia lingüística. - Los contratos celebrados por la Fundación Bizkaia Bizkaialde están sujetos al régimen de doble oficialidad lingüística establecida por el artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y la Ley vasca 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskara, así como al resto de la normativa autonómica y foral vigente en la materia.

10.- Obligación de mantener el empleo y la plantilla.

Conforme al artículo 76.2 y 3 y artículo 202 de la LCSP, la empresa licitadora se compromete a que, en caso de resultar adjudicataria, deberá mantener la plantilla mínima establecida a tal efecto en los pliegos de prescripciones técnicas a lo largo de toda la ejecución del contrato. A tal efecto, las licitadoras deberán manifestar mediante la declaración responsable contenida en el ANEXO 2 el número de personas trabajadoras que van a emplear para la ejecución del contrato y su jornada laboral expresada en horas de trabajo al año. Si la plantilla no fuera homogénea a lo largo del contrato, se deberá presentar un calendario con indicación concreta de número de personas e individualizando su jornada anual de trabajo en horas de trabajo por persona, así como las fechas de inicio y fin del contrato

9.9.2.1.- Seguimiento del cumplimiento de las condiciones especiales de ejecución.

Por parte de la Fundación Bizkaia Bizkaialde.- La persona responsable del contrato realizará el seguimiento del cumplimiento de dichas condiciones especiales de ejecución y podrá recabar de la contratista, en cualquier momento durante la ejecución del contrato, la documentación correspondiente o cualquier otra que estime pertinente para ejercer sus facultades de control y evaluación del cumplimiento del contrato, así como solicitar la celebración de reuniones de seguimiento o informes periódicos de evaluación. Asimismo, la persona responsable del contrato informará al órgano de contratación sobre los posibles incumplimientos de las obligaciones previstas en el contrato, y, en su caso, propondrá el inicio del procedimiento de imposición de penalidades o de resolución del contrato.

Por parte de la persona contratista. La contratista asume la obligación de tener a disposición de la persona responsable del contrato y facilitar la información y documentación requerida por ella para acreditar el cumplimiento tanto de las condiciones especiales de ejecución recogidas en el presente pliego, como de los compromisos adquiridos en la declaración responsable del

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

konpromisoak.

9.9.2.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzearen ondorioak.

Kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzeagatik.

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea ez-betetze arintzat joko da, eta zigorraren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 4ra artekoa izan daiteke, salbu eta kontratazio-organoak uste badu —era arrazoituan—, ez-betetzea larria edo oso larria dela. Halakoetan, zigorra % 7ra artekoa izan daiteke, ez-betetze larria gertatzen bada, eta % 10era artekoa, berriz, ez-betetze oso larria gertatzen bada. Larritasun-maila kalkulatzeko, kontuan hartuko da ez-betetzearen errepikapena.

Baldintza-agiri honen karatulako "U" atalak (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK) ezartzen dituen gauzatze-baldintza bereziak betetzen ez badira, kontratazio-organoak atal horretan aurreikusten diren zigorrak ezarri ahal izango ditu. Atal horretan ("U" - BESTE ZEHAZTASUN BATZUK) ez bada zigorrik aurreikusten, aurreko paragrafoan ezarritakoa beteko da, eta bertan aurreikusitako zigorrak ezarri ahal izango ditu kontratazio-organoak.

Zigorrak betetzeko aukera bi daude: batetik, zigor horien zenbatekoa kendu egin daiteke kontratistari egin behar zaizkion ordainketa oso edo partzialetatik; bestetik, zigor hori bermetik ken daiteke, halakorik eratu bada eta zigor horien zenbatekoa ezin bada egin beharreko ordainketatik kendu.

9.9.3.- Enpresa kontratista adjudikaziodunaren langileei buruzko arau bereziak.

1.- Kontratu hau egiteko erabiliko diren langileei dagokienez, enpresa kontratista-adjudikaziodunak bere gain hartzen du enpresaburu guztiek enpresa zuzentzeko berez duten boterea benetan, eraginkortasunez eta etengabe erabiltzeko betebeharra. Hain zuzen ere, honako jarduera hauek hartuko ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezkapenak egitea; lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebehar legalak betetzea; diziplina-zehapenak jartzea —hala badagokio—; Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne; eta enplegatuaren eta enplegu-emailearen arteko kontratu-harremanetik datozen eskubide eta betebehar guztiak betetzea.

2.- Enpresa kontratista-adjudikazioduna behartuta dago kontratuaren helburua bere bulego edo instalazioetan betetzera; baina, salbuespenez, baimena eman dakioke zerbitzuak administrazio-bulegoetan egiteko. Kasu horretan, enpresa kontratista-adjudikazioduneko

ANEXO 2

9.9.2.2.- Consecuencias del incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución.

El órgano de contratación podrá imponer penalidades a la empresa contratista por incumplir las condiciones especiales de ejecución.

El incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución se calificará como leve y la cuantía de la penalidad será hasta un 4 % del precio del contrato salvo que motivadamente el órgano de contratación estime que el incumplimiento es grave o muy grave, en cuyo caso podrá alcanzar hasta un 7%, en el primer caso, y hasta un 10% en el segundo. La reiteración en el incumplimiento se tendrá en cuenta para valorar la gravedad.

Para el caso de incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución previstas en el apartado "U "OTRAS ESPECIFICACIONES" de la carátula del presente pliego, el órgano de contratación podrá imponer las penalidades previstas en el citado apartado. En defecto de previsión de penalidades en el citado apartado "U" OTRAS ESPECIFICACIONES", se estará a lo dispuesto en el párrafo anterior y el órgano de contratación podrá imponer las penalidades previstas en el mismo.

Las penalidades se harán efectivas mediante deducción de las cantidades que, en concepto de pago total o parcial, deban abonarse a la contratista o sobre la garantía que, en su caso, se hubiese constituido cuando no puedan deducirse del pago.

9.9.3.- Reglas especiales respecto del personal laboral de la empresa contratista-adjudicataria.

1.- En relación con los trabajadores y las trabajadoras destinados/as a la ejecución de este contrato, la empresa contratista-adjudicataria asume la obligación de ejercer de modo real, efectivo y continuo el poder de dirección inherente a todo/a empresario/a. En particular, asumirá la negociación y pago de los salarios, la concesión de permisos, licencias y vacaciones, las sustituciones, las obligaciones legales en materia de prevención de riesgos laborales, la imposición -cuando proceda- de sanciones disciplinarias, las obligaciones en materia de Seguridad Social, incluido el abono de cotizaciones y el pago de prestaciones, así como cuantos derechos y obligaciones se deriven de la relación contractual entre empleado/a y empleador/a.

2.- La empresa contratista-adjudicataria estará obligada a ejecutar el contrato en sus propias dependencias o instalaciones salvo que, excepcionalmente, sea autorizada a prestar sus servicios en las dependencias administrativas. En este caso, el personal de la empresa

Elektronikoki sinatutako dokumentua. IL9D-E65C-A9A8-C864 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) IL9D-E65C-A9A8-C864 en www.ebizkaia.eus.

langileek, ahal delarik, langile publikoetatik bereiz egongo dira, hau da, beste leku bat okupatuko dute. Enpresa kontratista-adjudikaziodunari dagokio baldintza hau ere betetzea.

3.- Enpresa kontratista-adjudikaziodunak koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du gutxienez ere; pertsona horrek enpresako plantillakoa izan behar du, eta betebehar hauek izango ditu, besteak beste:

a) Enpresa kontratista adjudikazioduneko langileek enpresa kontratatzaileari kontratuaren gauzatzea dela-eta egin beharreko edozein jakinarazpen jaso eta transmititzea.
b) Enpresa kontratista-adjudikaziodunaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, bereziki langileak lanera joaten diren eta nola hartzen dituzten oporrak. Izan ere, kontratatutako zerbitzua ez eragoztea da helburua.

9.9.4.- Lan-arriskuen prebentzioari buruzko betebeharrak

Kontratistak, adjudikatu zaion lana betetzeko erabiliko dituen langileak direla eta, zehatz-mehatz bete behar du lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia. Halaber, kontratistak beste konpromiso bat hartu behar du: enpresa azpikontratistek —halakorik egonez gero—, haien langileak direla-eta, lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen legedia beteko dutela.

Bereziki, enpresa kontratistak hauek bete behar ditu:

